



Marmalur

**AZTERLANA, GIPUZKOAKO KONTSUMO
KONTZIENTEAREN ALDEKO MUGIMENDUARI BURUZ**

**BURUTUTAKO PROZESUAREN ETA EGINDAKO
ELKARRIZKETEN LABURPENA ETA ANALISIA**

Argitaratzen du:



MUGARIK GABE
Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
Web : www.mugarikgabe.org



Garapenerako Lankidetzeta GKE den **Mugarik Gabetik** (mundu mailako) globala eta interdependentea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza s/n,
01003 Vitoria-Gasteiz
araba@mugarikgabe.org
Tel.: 945 277 385 / 656708617
Fax: 945 277 385

BIZKAIA

Grupo Vicente Garamendi nº5 P.B.
48006 Bilbao
bilbao@mugarikgabe.org
Tel.: 94 415 43 07 / 94 415 48 21
Fax: 944 166 796

GIPUZKOA

Katalina Eleizegi kalea 46, baxua, 3. atea,
20009 Donostia
gipuzkoa@mugarikgabe.org
Tel.: 943 445 977 / Móvil: 656708598
Fax: 943 445 977

Finantzatzen du:



Oharra: lan honetan azaltzen diren iritzi eta balorazio desberdinak ez dute ezinbestez finantziazten duen instituzioaren iritziekin bat etorri beharrik.

www.mugarikgabe.org



AURKIBIDEA

Prozesuaren aurkezpena eta laburpena	4
Egindako elkarrizketen galdetegia - gidoia	5
Aiztondoko Denbora Bankua.....	6
Antiguaotarrak.....	7
Auzolan.....	8
Bagara	9
Biolur.....	11
Elkarsarea.....	13
Mugarik Gabeko Ekonomialariak eta Fiare Banka Etikoa	14
Mari Puri Tijeritas	16
Mugarik Gabeko Albaitariak	18
Otarra Bioelkartea.....	19
Saskika.....	21
Setem Hego Haizea.....	23
Uztaro Kooperatiba.....	25
Zero Zabor.....	27
Ondorioak eta gomendioak.....	28
Eskerronak.....	29
ERANSKINA: Genero eta Elikadura Burujabetza Gida	31

PROZESUAREN AURKEZPENA ETA LABURPENA

Proiektu hau jaio zen Gipuzkoan Kontsumo Kontziente eta Arduratsuaren (KKA) arlo zabal batean lan egiten duten antolakunde batzuen arteko ezagutza- eta hausnarketa-prozesu bat sustatzeko asmoz. Mugarik Gaberen irudiko, KKAren barruan elikadura txertatzen bai eta kontsumoko artikulua eta zerbitzu guztiak haien bizitza-ziklo osoan zehar: ekoizpena, banaketa, merkaturatzea, kontserbazioa, kontsumoa eta hondakinen deuseztatzea. Gure kontsumoaren gizarte- eta ingurumen-eragina ulertzea Dakar eta egungo sistema aldatzeko duen ahalmena.

Asko dira Gipuzkoan gaur egun KKAk jasotzen dituen gai espezifikoekin lanean ari diren antolakundeak, hala nola Elikadura Burujabetza, hondakinen murrizketa, auzolana, ekoizpen eta banaketa ekologikoa, bidezko merkataritza, banku etikoa eta abar. Prozesu honen bidez elkar ezagutzeko, gogoeta egiteke eta ikasteko eta alternatiba bateratuak eraikitze-ko tresnak sortu nahi izan ditugu (inkestak, bideoak, mahai-inguruak....

Ikus-entzunezko eta idatzizko azterlan honetan antzeman dezakegun eragileak identifikatzeko prozesua gogorra izan da, eta erresistentziaren bat ere aurkitu izan dugu landa-gunean errotutako zenbait kolektibotara hurbiltzeko orduan, iruditzen baitzitzaie GGKE bat muturra sartzen ibili zitekeela interes jakin batekin lantzen ari garen esparruan. Hala ere, ikuspegi ezberdinetatik kontsumo arduratsuaren arloan lanean ari diren kolektibo gehienek oso modu positiboan erantzun dute eta interesa agertu dute Gipuzkoan antzeko lana egiten ari ziren bestelako alternatibak ezagutzeko.

Ohiko GGKEak baino informalagoak diren hainbat taldek egindako tokiko lana azalartzearen aldeko apustua gakoa izan da grabazioak egiteko orduan. Grabazio horiekin banakako elkarrizketak eta dokumental bat egin dira, eta horiek antolakunde guztiei eman zaizkie, gizartearen aurrean aurkezteko tresna gisa. Gainera, lehenengo eskutik ezagutu dira beste eredu baten alde egiten duten ekimenak, ez soilik beste kontsumo-eredu baten alde, baizik eta gizarte arduratsuago baten alde, hala nola diren Auzolan Ekimena edo

sortuko den Gipuzkoako denbora-bankuen sarea, zeinak proiektuarekin babestu baititugu. Zehazki, ondorengo taldeei egin zaizkie elkarrizketa grabatuak: Setem Hego Haizea, Mugarik gabeko Ekonomia-lariak-Fiare, Anti-guaotarrak Kontsumo Taldea, Mari Puri Tijeritas, Otarra Bioelkartea, Uztaro Kooperatiba, Saskika-Lurlan, Auzolan Ekimena, Aiztondoko Denbora Bankua, Mugarik Gabeko Albaitariak - VSF, Elkartruke-Elkarsarea, Zero Zabor Ekimena Tolosa, Bagara eta Biolur.

Txosten honetan talde eta pertsona horien guztien iritzia azaltzen dira. Elkarrizketak leku eta garai ezberdinetan egin dira, eta galderen gidoi bati jarraitzen saiatu gara, nahiz eta ez den guztietan lortu, elkarrizketen inertiagatik eta taldeen interes- eta inplikazio-maila ezberdinengatik. Elkarrizketetan ondorengoei buruzko iritzia jasotzen dira: gaur egungo kontsumoa, gaur egungo ekoizpena eta kontsumo-eredua ordeztzeko dauden alternatibak eta Gipuzkoan egiten ari diren ekimenak. Talde guztiak saiatzen dira ekonomia sozial jasangarri baten oinarriak ezartzen, krisi-garaitan eta egungo eredu ekonomiko nagusia agortzen ari den honetan are beharrezkoagoa den ekonomia bat hain zuzen. Hori dela eta, hainbeste taldeei elkarrizketa eginda, ikusi da gaiak ezberdinak izan arren antzeko norabidean doazela, eta gurutzatutako ideiek bat egiten dutela nahiko osatuta eta argi dagoen diskurtso alternatibo batean, egungo sistema kapitalista gainditzeko eta gizarte-eredu sozialago, jasangarriago eta humanoago baterantz joateko.

Zailtasunik handienetako bat izan da kontsumo arduratsuaren sektorean lehentasun gisa genero-ikuspegia edo apustu feminista duten antolakundeak aurkitzea. Gainera, antzematzen da ezjakintasun eta gabezia handiak daudela KKA eta elikadura-burujabetzaren arloko gaietan genero-ikuspegiarekin lan egiteko orduan. Horregatik dokumentu honi erantsi diogu elikadura- burujabetza eta generoari buruzko gidaliburu labur bat; guk egin dugu, beharrezkotzat jotzen dugu eta.

Halaber, prozesuan zehar hiru topaketa egin dira parte hartu duten zenbait organizazioen artean. Topaketa horietan organizazioek elkar ezagutu dute eta kontsumo kontzientearen aldeko ekimenak zabaltzea lortu dute, Donostian zein Tolosan. Topaketak 2012ko martxoan, maiatzean eta ekainean egin ziren

eta beste kontsumo-eredu bidezkoagoa baten alde eta beste gizarte-eredu baten alde egiten duten hainbat kolektibo elkartzeko gune bihurtu ziren.

Lehenengo topaketaren kasuan, 2012ko apirilean egin zen Saretuz sarearen eta Emaús Fundazio Sozialaren bitartez Donostiako San Telmo Museoan, hirian kontsumo arduratsuko sare bat finkatzearen. Bertara gaiarekin konprometitutako GGKEak joan ziren, bai eta EHNE Gipuzkoako, Otarrako eta inguruko abeltzaintza-kooperatiba agroekologikoetako kideak, besteak beste. "Ekologistak Martxan" eta Guatemalako "La voz de la resistencia" organizazioek egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduaren ondorioak aztertu zituzten, eta ondoren beste kontsumo-eredu baten aldeko hainbat alternatiba azaldu ziren, elikaduraren, arroparen, banku etikoaren, higiene eta zainketen, jolasen eta abarren ikuspegitik.

Bigarren topaketa 2012ko maiatzean egin zen Tolosan eta Adunan. Horretan, inguruko denbora-bankuei babesa ematean zentratu ginen, eta haien bidez hain agerian ez zeuden beste kontsumo-eredu baten aldeko ekimenen berri izan genuen.

Hirugarren topaketa ekainean egin zen Donostian, hain zuzen ere hilabete horretan hainbat kolektibok –tartean Mugarik Gabek- antolatutako G-20aren aurkako batzarraren barruan, zeinaren apustua baitzen prozesu hau guztia elikatzea eta alternatibak eskaintzea kontsumo kontziente eta arduratsuen eta feminismoaren esparrutik. Horretarako Basherry taldeen eta Auzolan ekimenaren parte-hartzea izan genuen eta Tolosako Denbora Bankua aurkeztu genuen, eta era berean Auzolanek eztabaidarako aurkeztutako txanpon sozialaren proposamena ere aurkeztu zen.

Prozesu honek guztiak ezagutza, koordinazio eta elkarlaneko guneak sortu ditu. Hala, Donostian sortutako Saretuz sarearen bidez, kolektibo ugari aldian-aldian koordinatu eta bildu egiten gara eta hainbat antolakundekin, hala nola Mugarik Gabeko Albaitariak, Mugarik Gabeko Ekonomialariak (Fiaren barruan dagoena). Emaús, Antiguaotarrak, Biolur eta Otarra, besteak beste.

Esan dugunez, prozesu hau guztia dokumentatu eta grabatu egin da eta horren emaitza da dokumentu hau. Dokumentuari erantsi diogu

banakako elkarrizketen grabazioa eta horiekin eta topaketekin egindako dokumentala. Beraz, jarraian egindako elkarrizketen laburpena eta balorazioa egiteari ekingo diogu

ELKARRIZKETETARAKO ERABILI DEN GALDETEGI – GIDOIA

Elkarrizketatutako talde guztientzat galde-tegi- edo gidoi-eredu bakarra erabili zen. Jarraian azaltzen da:

<ul style="list-style-type: none">• Elkarrizketatutako pertsonen aurkezpena.
<ul style="list-style-type: none">• Ordezkatzen duten elkarte edo kolektiboaren aurkezpena.
<ul style="list-style-type: none">• Elkarte edo kolektiboaren deskribapena, izateko arrazoia, hasiera eta eboluzio historiko laburra.
<ul style="list-style-type: none">• Lan-esparruan: lurralde-esparrua, gaur egun lantzen dituzten helburu edo lan-ildo tematikoak.
<ul style="list-style-type: none">• Egiten dituzten jardueren tipologia, bereziki nabarmendu nahi duten edo garrantzizkotzat jotzen duten jarduera bat.
<ul style="list-style-type: none">• Lana genero-ikuspegiarekin: genero-hausnarketarik egin duten eta zein zeregin betetzen duten gizonaek eta emakumezkoek taldean.
<ul style="list-style-type: none">• Zein diren egungo erronkak, aurkitutako zailtasunak, kolektiboaren abantailak eta potentzialitateak eta garatzen duten lana.
<ul style="list-style-type: none">• Sareko lana: antzeko zein beste kolektibo edo elkarte ezagutzen dituzten, zeinekin duten harremana eta zeinekin lan egiten ohi duten .

AIZTONDOKO DENBORA BANKUA

Elkarrizketaren iraupena: 10 min. 24 seg.

Taldearen lokalizazioa:
Aiztondo (Tolosaldea)

Elkarrizketatuak:
Eider Ezeizaeta, Nagore Ezeiza. Bi emakumezko.

Elkarrizketaren lekua:
Aiztondoko plazako trukaketa-merkatua.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:
Hitzaldiak eta aurkezpenak, trukaketa-topaketak.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Talde gisa duten dimentsioa handitzea.
- Sareko lana sendotzea.
- Populazio trinkoagoetara heltzea.
- Trukaketa bultzatzea jakintzak, zerbitzuak eta produktuak haien behararen arabera naturalizatu eta partekatzeko diru-ordainik gabe.

Web gunea – kontaktuak:
<http://www.facebook.com/aiztondoko.denborabankua>



fiantza-harremanetan oinarritutako eredu baten alde egiten dute. Eredu-trantsizio horretan, erabilgarritzat jotzen dute tanpon soziala, aldaketarako tresna gisa, ez helburu gisa.

Taldearen balorazioa:

“Aiztondo Denbora Bankua” taldearen ezauzgarri nabarmena da ohiko merkatuari alternatiba bat eman nahi diola eta jarrera kritikoa duela diruaren erabilpenaren inguruan. Gaur egun ahaztuta dauden balio baten alde egiten dute, hain zuzen ere aldaketa sozialerako bidea sendotzen duten balioak, kapitalismoak ulertu ezin dituen balioak, ez daudelako dirua erabiltzearen mende, kapitalismoak ez duela hizkuntza hori ulertzen. Hala ere, osatu edo hobetu beharko luke genero- eta ingurumen-ikuspegi zabalago bati dagokiona, izan ere, benetako aldaketa bat egon dadin beharrezkoa da produktu-, zerbitzu- eta jakintza-trukaketa batetik harago doan gogoeta bat.

Dena dela, aipatu dugunez, oso alternatiba interesgarria da eta herritik sortua da, inguruan bizi diren pertsonentzat ulergarria eta hurbila den horretatik. Horrek, hain zuzen ere, agian beste alternatiba osoago batzuek ez duten gertutasuna, potentzialitatea eta erakartzeko ahalmena ematen dio.

Elkarrizketaren laburpena:

“Aiztondoko Denbora Bankua” taldea duela lau urte sortu zen, gaur egungo metodoetatik harago elkar trukatzeko lanabes bat izateko xedez. Merkatuetan egiten ohi diren trukaketetan hiru gauza egon ohi dira trukaketa egiteko: Jakintzak, produktuak eta zerbitzuak. Horiek guztiak haien artean elkar trukatu daitezken, baldin eta bi alderdien arteko akordioarik badago.

Taldeko kideak produktuen merkantilizazioaren alde agertzen dira, eta haiekin elkar trukaketa eredu hori egin nahi dute. Industrializazioaren aurreko ereduetan eta dirurik gabeko elkar trukaketan sinesten dute, trukaketaren naturalizazioaren bidez. Hori dela eta, kon-



ANTIGUAOTARRAK

Elkarrizketaren iraupena: 16 min. 04 seg.
Taldearen lokalizazioa: Antigua auzoa (Donostia-San Sebastian).
Elkarrizketatuak: Oihana Orkolaga eta Alaitz Mujika. Bi emakumezko.
Elkarrizketaren lekua: Antigua auzoko parke publikoa.
Elkarrizketatutako taldearen jarduerak: Elikadura-produktu ekologikoak edota lokalak kontsumitzeko eta banatzeko taldea. Auzoko jaietan parte hartzen du elikadura ekologiko edo lokalarekin lotutako jarduerekin. Baserritarren eguna ospatzen du.
Elkarrizketatutako taldearen xedeak: <ul style="list-style-type: none">• Tokiko produktuen ekoizpena eta merkaturatzea sustatzea.• Elikadura osasuntsua eskuratzea hobetzea.• Hartu-emanak aktibatzea auzoan..• Sasoiko, tokiko produktuak eta produktu ekologikoak kontsumitzea.• Elikadura-burujabetzaren filosofia hedatzea.
Web gunea – kontaktua: http://antiguaotarrak.blogspot.com.es/

Elkarrizketaren laburpena:

"Antiguaotarrak" auzoko talde bat da. Taldea interes komuna auzokoa izatea zuen ekimen batetik sortu zen, izenak adierazten duen bezala, bai eta kontsumo ekologikoko talde bat sortzeko nahia. Hainbat dira bere sorreraren arrazoiak, esaterako bertoko produktuen zein orokorrean nekazaritzaren aniztasunaren berri izatea, eta kontsumitzaileari garrantzia ematea, gizartearen eraldatzaile giza maila politiko eta sozialean.

Taldea eraikitze-bidean dago maila filosofiko eta politikoan, taldean parte hartzeko iritzia eta motibazio anitzak daudelako, eta horrek nolabait jarraikortasuna eta egonkortasuna kentzen dio taldearen jarduerari eta xede sozialari dagokionez. Baina lehentasunak argi daukate, adibidez tokikoa sustatzea soilik ekologikoa denaren aurrean, eta jakin badakite eraikitze-bidean dagoen talde bat direla.



Taldearen balorazioa:

Taldeak badaki bultzatzen duten jarduerak ahalmena duela gizarte eraldatzeko elementu gisa, eta haien asmoa ere bada inguruko pertsonak horretaz sentsibilizatzea. Hori dela eta, ez dira kontsumo-talde soil bat. Hala ere, jakina, taldearen barruan sentsibilitate ezberdinak antzematen dira; badira taldean pertsona batzuk izaera eraldatzailea duelako eta beste batzuk, esaterako, osasun-kontuengatik daude. Ezberdintasun horiek nolabaiteko desoreka sortzen dute, eta generoaren eta ingurumenaren gaineko gogoeta apur bat falta da. Dena dela, ez dituzte euren xedean nahasten horregatik, eta jakin badakite beren lanaren ardatza auzoa dela, eta hortik abiatu behar direla proiektu guzti-guztiak. Ildo horretatik, beste talde batzuekin izaten dituzten kolaborazioak auzo osora zabaltzen dira eta tokiko ekintza guztien auzoaren sentsibilizazioa sendotzen dute. Ekintzok elkar elikatu egiten dira, batera hazi eta bat egiteko, konfiantzan oinarritutako aliantza komun eta hurbilak topatuz.



AUZOLAN

Elkarrizketaren iraupena: 34 min. 29 seg.

Taldearen lokalizazioa: Euskal Herria.

Elkarrizketatuak:

Jasone, Peio, Gorka, Xenki, Leire eta Ane. Auzolaneko kideak diren hiru emakume eta hiru gizon.

Elkarrizketaren lekua:

Taldearen topalekua, ganbara bat.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Tokiko topaketak, lan komunitarioak koordinatzea eta haien filosofiari buruzko liburu bat zabaltzea.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Euskal kultura eta beraien antolakundea indartzea eta sendotzea
- Bertoko biztanleen parte-hartzea aktibatzea.
- Sarean lan egitea tokiko taldeen artean.
- Lan komunitarioaren topaleku bihurtzea eta taldeen jarduera nagusiak dinamizatzea..
- Antolakuntza komunitarioari buruzko gogoeta-guneak sortzea.

Web gunea – kontaktua:

www.auzolan.info



Parte diren trantsizioaren jakitun dira, eta uste dute mendekotasun kapitalistarik gabeko eredu eta jarduerak sustatu beharra dagoela. Aldaketa beharrezkoa den une honetan, gizarte-harremanen egoera dramatiko bat azaltzen dute, harreman horiek berregituratu beharra dagoela. Haien ideiarekin bat egiten duten adibideak dira, haien ustetan, trukaketa eta txanpon soziala, kontsumo eta merkataritzaren monetarioaren aurrean, bai eta, dibertsifikazio soziala gorabehera, norabide horretara doazen ekintzen multzo bat. Horren guztiaren emaitza izango litzateke norbanakoaren asebetetzea eta taldearen asebetetzea, hau da, aldarrikapen-jarduera gozatze-ekintza gisa. Uste dute beharrezko aldaketa baten guneak eta tresnak partekatuz bizi-kalitatea hobetzen dela. Taldearen arabera, konponbidea gure esku dago.

Taldearen balorazioa:

Nahiz eta haien jarduteko eremua tokiko eta auzoko ekintza diren, diskurtso osoa du, ondo lotua eta integrala, zeinaren bidez beste lan-esparru batzuetara hel daitekeen, antzeko filosofia duten beste talde batzuekin batera lan eginez. Nabarmenezkoa da taldearen kohesioa, taldeko kide guztiek parte hartzen dutela. Horrek erakusten du aurretiaz ondo planifikatutako lan bat dagoela eta ideia guztien arteko koherentzia. Aplikatu dakieke, beraz, "globalean pentsatu, tokian ekin" dioen esaldia. Haien lana sinesgarria eta sendoa da eta benetako ekonomia soziala sortzeko aukera agerian jartzen du. Ezin zaio akatsik leporatu bere diskurtsoari.

Elkarrizketaren laburpena:

Auzolan taldea euskaldunon arbasoek haien herriak kudeatzeko –batzarren bidez edo auzolanaren bidez- aukeratu zuten antolamenduaren analisi oso baten emaitza da. Bide horretatik sistema kapitalistak sortutako ezbaiei erantzuten saiatzen dira eta haien hiru ardatz nagusiak dira autonomia, autogestioa eta autosufizientzia.

Haien lanaren erakusgarri dira Euskal Herri osoan ideia horietan oinarrituta egiten dituzten jarduerak; haietako batek atso-agureen zaintza elikadura-burujabetzarekin lotzen du. Adibide honek eta beste askok arazo sozial ezberdinak tresna bakar baten bidez lortzen du, hain zuzen ere taldeari izena ematen dionaren bidez: auzolana. Hain lanaz gain, uste dute jarduerak desazkondearen aldeko diskurtsoari laguntzen diotela, zeina tradiziozko eta herriaren jakintzetan oinarritzen baita. Haien ustez, honek guztiak funtzionatu dezan beharrezkoa da ardura indibidual eta kolektiboak hartzea.

BAGARA

Elkarrizketaren iraupena: 34 min. 29 seg.
Taldearen lokalizazioa: Debagoiena.
Elkarrizketatuak: Bi emakume: Iraitz Agirre eta Nagore Iraola
Elkarrizketaren lekua: Aretxabaletako euren lan-bulegoa.
Elkarrizketatutako taldearen jarduerak: Debagoieneko egoera sozio-ekonomikoari buruzko azterlanak egitea. Proiektuak proposatu, landu eta burutzea.
Elkarrizketatutako taldearen xedeak: <ul style="list-style-type: none">• Gizarte-eraldaketarako jarduerak abian jartzea.• Modu komunitarioan erantzutea gizarte-erronkei.• Sareko lana eta konponbide komunitarioak sendotzea.
Web gunea – kontaktua: http://www.bagara.net/



Elkarrizketaren laburpena:

Bagara taldea sortu zen tokiko eragile batzuek eskualdean arazo berberak identifikatu eta haien beharriari erantzuna ematea erabakitzen dutenean. Horretarako lau puntu nagusitan hasten dira lanean: euskara eta bere ingurua, elkartasuna, autogestioa eta iraunkortasuna.

Hezkuntzari garrantzia ematen diote eta hezkuntza-maila, kooperatibismoa, eragin politikoa eta aktibismoa bultzatzen ahalegintzen dira. Ikuspegi komunitario batetik, gizarte osoaren antolaketa sustatzen saiatzen dira. Horregatik, lau lan-ardatz nagusiez gain, bereziki aipatzen dira hainbat gai: nekazaritza, kultura, gazteria, kontsumoaren humanizazioa, etxebizitza, immigrazioa... Eskualdeko arazoak eta benetako egoera identifikatzearen, hainbat aditu-talde osatu ziren, eta haiekin proiektu komun baten proposamena landu zen. Ondorio batzuetan ikusi zen gazteek zailtasunak dituztela nekazaritzarako lurak lortzeko edo merkaturatze-bide laburretara sartzeko.

Bestalde, ikusten dut beharrezkoa dela, sensibilizaziotik harago, pedagogia berri bat sortzea, zeinean kontsumoa humanizatuko den, merkatu arduratsuetarako sarbidea erraztuz ekoizleei zein kontsumitzaileei, kontsumitzeko modu berri baten bitartez. Oso ekimen interesgarri baten oinarritzen dira: "Transition Towns" izenekoan. Mugimendu anglosaxoia da batik bat, eta energia-sistamarako eta mugikortasunerako alternatibak aldarrikatzen ditu. Erreferentia izanda, gerta daitezkeen aldaketa eta gertakizunen aurrean ordenatzeko gida izan daiteke.





Haien erronka da oso industrializaturik dagoen bailara batean bizi direla, bai eta aurreikusitako proiektuak Aurrera eramateko finantzazio-arazoak. Aipatzekoa da ezen, haien ustez, komunitateak, krisia dela eta, enpatia handiagoa duela egoerarekin eta gehiago laguntzen duela egin nahi diren jardueretan. Gizartea, nolabait ere, jakitun da aldaketa baten beharraz, eta prestatutako eta krisi ekonomiko, sozial eta linguistikoaz kontziente diren pertsona gehiago identifikatzen dira.

Bagarak beste erronka garrantzitsu batzuk ere baditu aurrean, parametro berriak ezartzeko beharri loturikoak; uste dute erantzuna komunitatearen beraren esku dagoela eta erantzun hori desazkundean, proposamen eta konponbide komunitarioetan eta ikastolekin, ikastetxe publikoekin, nekazariekin, elkarteekin, kontsumo-taldeekin, kooperatibekin, sindikatuekin eta abarrekin sarean lan egitean oinarritu behar dela.

Azpirarratzekoa da genero-ikuspegi kontzientea dagoela proiektu guztietan eta ikuspegi hori ahal den neurrian txertatzen ahalegintzen direla, hobetu beharreko puntua bada ere. Kuantitatiboki emakume eta gizonezkoen berdintasunezko parte-hartzea agerikoa da, kasu honetan nahikoa ekitatiboa.

Zalantzekin begiratzen diote etorkizunari, eta uste dute pertsonak, komunitateak izan

behar dutela protagonista egin beharreko aldaketak egiteko alternatibak emateko orduan, gu geu garelako horretarako tresnak dauzkagunok.

Taldearen balorazioa:

Bagara profesionaltasun-jarrera batetik abiatzen da, zeinean erabilitako kontzeptuak eta hiztegia zainduta eta garatuta dauden; diskurtso osoa dute eta horren bidez tokiko arazoak lotzen eta barneratzen ahalegintzen dira aldaketa zeharkakoa eta global baten ikuspegitik. Zuzeneko hartu-emana dute nekazaritzaren sektorearekin eta kontsumitzaileen sektorearekin, eta beraz sentsibilizazioa sakona eta alde biko da.

Nabarmentzekoak dira egoera-azterlanak, errealitatea diagnostikatzeko modua: errealitate horretan oinarritzen dira benetako aldaketa baterako eragin ahal izateko, diagnostikatutako egoera horiei benetako erantzunak ematearren. Hizkera aberatsa dute eta gauzak adierazteko modua argi eta sinegarria da. Horri esker, talde askotan sortu ohi den lehenengo arazoa errazten du, komunikazioarena hain zuzen. Ezaugarri bikain horretatik abiatuz eta aztertu diren esperientzia kontrastatuekin batera, proiektuak eraiki eta garatzen dituzte ikuskera lokal-global eta integral batekin baina komunitatetik abiatuz.

Elkarrizketaren iraupena: 33 min. 52 seg.

Taldearen lokalizazioa:

Bergara, Gipuzkoa. Elkarrizketa egin den baserria Antzuolan dago.

Elkarrizketatuak:

Hiru emakumezko: Maje Gorritxo, Miriam Arrizabalaga (Biolurreko lehendakaria), Sabrina Pato (Ekolapiko proiektuko teknikaria). Bi gizonezko: Tomás Larrañaga (lehendakaria lehena), Adrián Sánchez (Biolurreko koordinatzailea)

Elkarrizketaren lekua:

Lapatza baserria, Antzuola.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Nekazaritza ekologikoa, kontsumo-taldeak, eskola-jantokiak, tailerrak, proiektuen kudeaketa, sentsibilizazio-kanpainak eta azoketan parte hartzea.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Bitartekariak saihestea elikagaien merkaturatzean.
- Nekazaritza ekologikoa sustatzea.
- Sasoiko eta bertoko produktuekin lan egitea.
- Ikastetxeetara elikadura ekologikoa, osasuntsua eta sasoikoa eramatea.
- Herritarrak sentsibilizatzea nekazaritza ekologikoa eta tokikoa izateak dakartzan abantailez.
- Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko aliantzak sortzea.
- Baserri jasangarriak sortzea.

Web gunea – kontaktua:

<http://www.biolur.net/>



Elkarrizketaren laburpena:

ENHE sindikatuak antolatutako hitzaldi batzuen ondorioz, nekazari batzuek ekoizpen ekologikoaren aldeko hautua egitea erabaki zuten. Zenbait ikastaro egin zuten atzerrian eta nekazaritza ekologikoa lantzen eta ezagutarazten hasi ziren.

Hasieran taldeak zailtasun ugari izan zituen, nekazaritza ekologikoa eta ingurumenarekiko eta giza osasunarekiko duen inplikazioa ez baitziren ezagutzen. Orokorrean ez zitzaion garrantzirik ematen tokiko ekoizpenari eta erakundeek ez zuten konfiantzarik nekazaritza-eredu tradizionalaz besteko ereduetan. Urteen joanarekin haien lana egonkortu dute, eta tokiko eta denboraldiko produktuen eta ingurumenaren zaintzaren alde lan egiten dute.

Biolurrentzat agroekologia norberaren asebetetzea bilatzeko modu bat da. Monolaborantzak aldatu egin dituzte eta aniztasunaren aldeko hautua egin; errotazioa darabilte, eta lurra saneatu dezakete; naturaren zaintzari eta, noski, osasunaren zaintzari laguntzen dioten balore batzuekin lan egiten dute, ez baitute pestizidarik edo kimikorik erabiltzen. Haien aburuz, gaur egun ondo antolatutako azpiegitura bat dagoela modu ekologikoan ekoizten hasten diren nekazariantzat: badira prestakuntza-zentroak, laguntzak, ezagutza berriak...

Kontsumitzaileei dagokienez, informazio gehiago dute, eta badakite osasunerako onurak zeintzuk diren. Hori dela eta, gero eta pertsona gehiago joaten dira kontsumo-taldeetan





parte hartzera. Biolurrek uste du nekazariak zein kontsumitzaileek sistema berbaren parte izan behar direla eta bertan inplikatu, sistema bat non talde bat bestearengandik elikatzen den. Beharrezkoa da kontsumitzen duten pertsonak informazioa izatea, tokiko eta denboraldiko produktuen onuren berri izan dezatela. Hala lortzen da ingurumena eta natura zaintzea, energia fosilen kontsumoa murriztea, osasuna hobetzea eta ekoizleen bizitzakalitatea hobetzea.

Beraz, gaur egungo erronkarik handiena da biztanleria osoari helaraztea, nekazariari barne, nekazaritza ekologikoaren kalitateari buruzko informazioa, eta haren oinarriak ezagutzera ematea, ekoizten zein kontsumitzen hasi nahi duten pertsonentzat.

Genero-azterketa batetik, badago lanen ezberdintze bat: emakumezkoak gehiago aritzen dira nekazaritzaren sektorean eta ez hainbeste abeltzaintzaren sektorean. Parte-hartzeari dagokionez, antzematen dute seme-alabak dituzten familietan gizonezkoak direla gehien parte hartzen dutenak, baina ez dute diskriminaziotzat jotzen, eta uste dute ardurak pertsonen nortasunaren arabera banatu behar direla, ez generoaren arabera. Emakumeak duela 50 urtetik hona egindako ibilbidea azpimarratzen dute, orduan emakumeak garrantzizko zeregina baitzuen baserrian, baina ezkutuan zegoen.

Ekolapiko proiektuan eskola-jantokiekin ere lan egiten dute, nekazari eta abeltzainen sare baten bidez. Neska-mutikoei ekoizpen ekologikoaren onuren berri ematen diete eta azaltzen diete nola ekoizten diren ja-

ten dituzten elikagaiak, bai eta zeintzuk ekoizten diren urtaro bakoitzean. Hala, neska-mutikoei bertokoa dena eta nekazaritza eta abeltzaintzaren lana baloratzen ikasten dute.

Sentsibilizazio-lan garrantzitsua egiten dute. Uste dute pertsonak naturaren zikloekin bateratu behar dutela, ulertu denboraldi bakoitzak bere produktuak dituela eta eraldatu behar dela supermerkatuek sortu duten kontsumitzeko era. Euskal kultura eta baserrietako bizitza sustatzeko eta garraioak sortutako kutsadura murrizteko modu bat da, tokiko ekoizpena piztuz.

Taldearen balorazioa:

Biolur oso antolaketa ona duen taldea da. Kohesio handia erakusten dute eta agerikoa da ibilbidea eta jasotako prestakuntza. Oso diskurtso koherentea dute haien proiektu guztien inguruan eta ikuskera integralarekin egiten dute, zeharkako arlo batzuk kontuan izanik; ekonomia sozialerantz eta kontsumismotik kanpoko beste kontsumo-eredu baterantz aldatzeko gogoeta sendoa da, lan-ildo ezberdinak jorratzen baitituzte.

Aipatzekoa da beharbada generoaren gaian gogoeta ez dela guztiz sakona, ez baita argi eta garbi aldarrikatzen haien kargura mendeko pertsonak (seme-alabak, adineko pertsonak) dituzten emakume baserriarren egoera-aldaketa bat, eta ez baita hitz egiten landa-eremuko emakumeen parte-hartzea, zereginen banaketa eta ahalduntzea sustatzeaz. Emakumeen parte-hartzea murriztua egiten da etxeko ardurak dituztelako eta zaintzako ardurak ere badituztelako; gainera, nekazari gisa jardun behar dute lur batzuetan, zeinen gainean sarri askotan ez baitute inolako eskubiderik. Edonola ere, agerikoa da emakumeen egoeraz, haien eskubideez eta iraganarekiko duten egoeraz jabeturik daudela, eta garrantzia ematen diotela nekazaritza eta abeltzaintzan emakumeek eta euren lanak izandako ibilbideari. Horren erakusgarri da taldeko presidentea emakumea dela.

Horregatik guztiagatik ondorioztatu dezakegu Biolur erreferentea dela Gipuzkoa bestelako nekazaritza-, abeltzaintza- eta kontsumo-eredu baten alde egiteko orduan.

ELKARSAREA

Elkarrizketaren iraupena: 9 min. 25 seg.
Taldearen lokalizazioa: Andoain
Elkarrizketatua: Peio Gaio, Elkarsareako kidea
Elkarrizketaren lekua: Tolosa, Triangulo plaza
Elkarrizketatutako taldearen jarduerak: Kontsumo-taldeak sortzea. Sentsibilizazio- -birak, -jardunaldiak eta -hitzaldiak..
Elkarrizketatutako taldearen xedeak: <ul style="list-style-type: none">• Banaketa solidarioa ikuspegi politiko batetik.• Sareko lana.• Ekoizpen- eta kontsumo-aldaketatik abiatuta, beste esparru ekonomiko-sozialerara hedatzea.
Web gunea – kontaktua: http://elkarsarea.blogspot.com.es/

Elkarrizketaren laburpena:

Elkarsarea duela 5 urte sortu zen, gutxi gorabehera, Elkartrukek elikadura-burujabetzaren inguruan egindako gogoeta baten ondorioz, lan politikoagoa eta sentsibilizazioan gehiago egitearren. Elikadura-burujabetzaren printzipioetan oinarritzen da eta sareak sortzen saiatzen da, beste kolektibo, GKE eta elkarte batzuekin arituz. Garrantzia ematen diote elikadura-burujabetzaren barruan genero-ikuspegiari. Hori dela eta haien kontsumo-taldeetan emakume nekazariak dituzte eta emakume baserritarrek gizonetik duten egoera diskriminatzailea azaleratzen ahalegintzen dira.

Horregatik, sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzte, arazo hori ikusarazi ahal izateko eta



konponbideak topatzeko moduak aurkitu ahal izateko. Elkarsarearen aldetik krisia aldatzeko aukeratzat jotzen da, egingarria den eraldaketa baterantz joateko. Gure esku dagoela uste dute.

Taldearen balorazioa:

Elkarsareak diskurtso globala eta osoa du eta lan-ildoak ondo markatuta daude. Interesgarria da daukaten ipar-hegoa ikuskera. Horri esker, bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza uztartzen dituzte, eta hori ez da oso ohikoa beste talde batzuetan. Era berean, ez da oso ohikoa taldearen lehenengo helburua sareko lana eta beste kolektibo batzuekin elkar eragilea izatea. Horrek erakusten du lan bateratuaren ideia sendoa dagoela eta borondate eraldatzailea. Hala, lehen sektoretik oso gertu daude eta gainera oso genero-gogoeta interesgarria dute emakume baserritarren inguruan.

Aldi berean, oinak lurrean dituzte, badakite zeintzuk diren haien mugak eta deskribatzen duten lanak konpromiso sendoa eta agerikoa erakusten du kide guztien lanarekiko.



MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK ETA FIARE BANKA ETIKOA

Elkarrizketaren iraupena: 18 min. 50 seg.

Taldearen lokalizazioa: Euskadi.

Elkarrizketatua:

Jesus Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomia-lariak taldeko kidea, FIARE

Elkarrizketaren lekua:

Donostia, Kristina Enea parke publikoa.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Garapenerako lankidetzaren hegoaldeko herrialdeetan. Mikro-ekintzaileen mintegi bat sortzea gizarteratze-arazoak dituzten pertsonentzat. Herritarren sentsibilizazioa.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Giza garapen jasangarria ardatz izango duen eta giza eskubideetan eta ardura sozialean oinarrituko den bidezko ekonomia baterako laguntza ematea.
- Herritarrak eta finantza-arduradunak sentsibilizatzea.

Web gunea – kontaktua:

<http://www.ecosfron.org/>

<http://www.proyectofiare.com/web/>



Bigarren lan-esparrua da kultura ekonomiko berri bat biltzea, egungoa ez bezalako enpresa mota batekin, zeinean sustatuko baita enpresariaren erantzukizun soziala haren alderdi koherente eta puruenetan, ospe-marketinaren ordean, gaur egun gertatzen den lez.

Azkenik, azken lan esparrua da aipatutako guztiaz sentsibilizatzea, herritar berriak sortzeko, arduratsuagoak erosten dutenarekin eta inbertitzen dutenarekin.

Taldearen aburuz, oinarritzakoa eta funtsezkoa izango litzateke finantzetan aldaketa bat lortzea, gainerako eragileak berarekin batera eramango dituen aldaketa bat, ezarritako helburuak lortze aldera. Mugimendu horretarako lagungarria izango litzateke herritarrak, aurreztaileak eta inbertitzaileak sentsibilizatzea. Pertsona horiek, haien diruarekiko gardentasuna eskatuta, finantza-erakundeak behartuko lituzkete diru hori paradisu fiskaletan ez erabiltzera edo armen fabrikazioan ez inbertitzera. Horregatik antzeko ideiak dituzten taldeekin sarean lan egiten ahalegintzen dira, finantza garbiagoen helburura hurreratzen joateko. Halaber, banku etikoei ere laguntza ematen diete estatuan zein Europan, hala nola Fiareren banku etikoaeren proiektuari, zeina Euskadin sortu baitzen eta gaur egun estatuen lurralde osora hedatu baita.

Fiaren gaur egun ia 300 antolakunde sozial daude estatu osoan proiektu horri babesa ematen. Hortaz, lurralde bakoitzean antolakunde sozialak eurak dira zabalpena susta-

Elkarrizketaren laburpena:

Mugarik Gabeko Ekonomia-lariak 1997an sortutako garapenerako lankidetzarako GKE bat da. Bidezko ekonomia baten alde lan egin nahi duten pertsonen osatzen dute, mota guztietakoak. Egungo ardatzetan oinarrituko ez den ekonomia bat. Izan ere, gaur egun errentagarritasun ekonomikoa eta ahalik eta onurarik handiena dira ardatz horiek, eta haiek giza garapen jasangarria eta giza eskubideetan eta ardura sozialean oinarritutako giza garapenerako eredu bat eraikiko suten ekonomia bat lortu nahi dute.

Helburu hori erdiesteko, hiru esparru ezberdinetan lan egiten dute. Alde batetik eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak daude. Hegoaldeko herrialdeetan ere aritzen dira, lurralde txiroenen oinarri ekonomiko eta soziala sendotzearen. Halaber, mikro-ekintzaileen mintegi bat sortzeko proiektu bat abiarazi dute, gizarteratzeko arazoak dituzten pertsona eta kolektiboentzat.

tzen ari direnak. Fiareren oinarrizko alderdietako bat gardentasun osoa da. Fiareren web gunean kreditu eman zaien ekintza edo proiektu guztiak azaltzen dira. Fiareren barruan, bai batzorde etikoak bai batzorde ekonomikoak mailegua eskatzen duten proiektu sozialei eman ahal zaizkien maileguak baloratzen dituzte eta ezinbestekoa da bi batzordeek proposamena onestea.

Dagoeneko 28 milioi aurrezki eskuratu dituzte, eta ia 27 milioi eman dira maileguetan. Bestalde, Europako kreditu-kooperatiba sortze aldera, lehenengoz estatutuko kreditu-kooperatiba sortzen saiatzen ari dira; une honetan ia kapital sozialeko ia 3 milioi jaso dira, baina euren asmoa da 5-6 milioira heltzea, Espainiako Bankuak jarriko dituen baldintzen arabera.

Datu ekonomikoetatik harago, Fiare kapital soziala eskuratzeko kanpaina bat egiten ari da, hain zuzen ere proiektu honetan ahalik eta bazkide gehienek eta ahalik eta herritar gehienek parte har dezaten.

Taldearen balorazioa:

Fiare oso helburu handi batekin sortu zen, eta beraz haren antolaketa eta kudeaketa ezinbestekoak dira finantzazioa modu koherentean lortzeko orduan etika eta moralaren ikuspegitik. Hori dela eta, bere perspektiba lokala eta europarra egokiak dira kasu honetan eta nabarmentzekoa da beste talde batzuk inplikatzeko eta haiekin kolaboratzeko borondate argia. Horrek gero eta sendoago bihurtzen du banku tradizionalaren aurrean, nahiz eta momentuz ezin duen harekin "lehiatu".

Beharbada, banku horiekiko eta finantza-sistema globalarekiko kritika sendoago baten lagunduko luke herritarrak are gehiago kontzientziatzen, eta banku etikoak berak eskuragarritasun handiagoa eta eskaintzeko zerbitzu hobekak baleuzka (ohiko banku batek dituenaren antzekoak) bere presentzia irmoagoa izango litzateke gizartean eta gehiago haztea lortuko luke banku eta aurrezki-kutxa handien alternatiba gisa. Edonola ere, lanean ari dira horretan eta laster lortzea aurreikusten dute.

Genero-gogoeta baten hutsunea nabaritzen da, esate baterako gaur egun emakume eta



gizonen artean baliabide ekonomikoak eskuratzeko orduan dagoen ezberdintasunaz edo gizonek diruaz duten kontrolari buruz. Dena dela, Mugarik Gabeko Ekonomialeariak elkartearen eta Fiare proiektuaren ezaugarriak direla eta, ezinbesteko tresnak dira azken urteotan hainbeste gehiegikeria egin dituen egungo finantza-sistemaren ordeko alternatiba erreala, koherentea eta integrala eraikitzeko.

MARI PURI TIJERITAS

Elkarrizketaren iraupena: 21 min. 58 seg.

Taldearen lokalizazioa:
Donostia, Antigua auzoa.

Elkarrizketatua: Garbiñe Tolosa

Elkarrizketaren lekua:
Lantokia, joskintza-tailerra

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:
Emakume eta umeen higiene eta zaintzarako produktu berrerabilgarriak egitea.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Botatzeko produktu guztietarako alternatibak aurkeztea, baita barruko arroparako ere.
- Ehun ekologiko eta zainduekin lan egitea.
- Kontsumo jasangarrirako jarraibideak ematea.

Web gunea – kontaktua:
<http://www.maripuritijeritas.com/>



Elkarrizketaren laburpena:

Garbiñe Tolosa, ezizenez "Maripuri Tijeritas", diseinatzailea eta jostuna da, eta zaintza eta "mimo jasangarrietarako" –berak hala esaten die- hainbat produktu egiten ditu: haur-oihala, konpresak, zapiak eta abar. Bere jarduerak sortzen dugun hondakin kopuruari buruzko gogoeta batean du sorrera, bere ustez gehiegi sortzen baitugu eta ekoizpenaren kostua oso handia baita ingurumenaren ikuspegitik. Guxitu beharra dagoela uste du. Beharrezkoa da haren aburuz material ekologiko eta jasangarriekin lan egitea, nahiz eta bi terminoak kontrajartzen dituen: gerta daiteke ekoizpen ekologikoko materialen garraio-ibilbide luzeek jasangarritasuna galaraztea.

Bere lanean tratu pertsonalizatua baloratzen du, elkarrizketa, artisauek eta bezeroaren artean sortzen diren harremanak, eta uko egiten dio azalera handiko merkataritza-guneetan eragiten duten inpersonaltasunari. Esaten du pertsonak bakarrik sentitzen direla, euren sentimenduez hitz egiteko premia dutela eta gustukoa dela haiei entzutea eta beraien prozesuak erraztea, hala nola ama izateko prozesua.

Jakin badaki zenbaitetan erabaki bat hartu beharra dagoela, ekoizpen handirako jauzia emateko ala ekoizpen txikian jardun eta muga bat jartzeko bizitza laborala eta pertsonala bateratzearen. Erabilitako materialei dagokienez, nabarmentzen du zaila dela ehun ekologikoak aurkitzea, batik batik atzerritik ekartzen direnean eta konfiantza-harreman batean oinarritzen direnean, zaila baita jakitea lan-baldintza duinetan ekoitzi den, benetan produktu



ekologikoa den, zenbateko portzentajearen den ekologikoa eta abar. Eta tindagaien kontuan askoz zailagoa izaten da.

Ikertuz gero, beharbada egiaztatutako zigilurik ez duten ekoizle txikiak topatu daitezke, zeinak oso baldintza onetan lan egiten duten eta filosofia komuna duten. Ondorioz, haiekin konfiantza-sarea ezarri daiteke, bai eta kontaktuak partekatu beste jantzigile batzuekin. Distantzia laburreko materialak eskuratzea da asmoa, baina nahiz eta Andaluzian ekoizten hasi diren, gaur egun kotoi ekologikoa ekoizten duen produktorerik hurbilena Turkian dago. Kontsumoari dagokionez, azpimarratzen du garrantzizkoa dela zenbait jarraibide ematea, hala kontsumo-modu jasangarriagoak ezarri ahal izateko. Horren adibide izango litzateke erabili eta botatzeko produktu guztiak baztertzea.

Bere tailer-dendatik aholkuak emateko eta ikasketak komuna lortzeko tailerrak eskaintzen ditu. Garrantzitsua da gure kontsumo-ohiturekin eredugarri izatea eta horregatik uste du nork bere ekintzekin kontsekuente izan behar duela.

Bertokotik harago, beste herrialde batzuetako egoera aipagai du, izan ere, zenbaitetan haur-oihalak merkataritza-zentroetan ere saltzen dira. Euskadin ohitura hori moda baten bidez heldu da, baina beharrezkoa izango litzateke moda horretaz baliatzea eta aldaketa bat lortzea. Ekimen positiboa da, esaterako, Donostiako Udalak egindakoa: hondakinak gutxitzeko eta haur-oihalen kasuan zabor gutxiago sortzeko kanpaina bat. Kritikak kritika, proiektua aurrera doa. Esaten duenez, garbitzeak lana eskatzen du, baina hondakin gutxiago sortzeko poztasuna merezi die produktu hauek erabiltzen dituzten pertsonei.

Moda berdearen barruan, marka handi askok marketina darabilte benetako jasangarritasunaz edo materialez inolako kezkarik izan gabe; horregatik, beharrezkoa da tokikoari garrantzia ematea, jakitea zein irizpiderekin ekoizten den eta zein material erabili diren. Espainiako estatuan eta Euskadin, alternatiba berriak abiatzen direnean, pertsonak asmoz modu aktiboagoan parte hartzen dute, jendea proiektuei babesa ematen die eta laguntza-sareak sortzen dira.

Haren ustez beharrezkoa da haurtxoen hazkuntzan aldaketa bat izatea, hain zuzen ere

hazkuntza partekatua ezartzeko, hau da, ez laguntzazkoa, zeinean ardua amarena baita eta aitak laguntzen baitu, baizik eta hazkuntza erabat partekatua etxearen eta bertan bizi diren pertsonen zaintzari dagokionez. Halaber, uste du tabuak hautsi behar direla, adibidez hilekoaren kontua, naturaltasuna aldarrikatuz eta emakumeen izaera ezkutatu gabe.

Bere ustetan kontsumo-ohituretan aldaketa bat gertatzen ari da; lan handia egiten ari da tokiko eremutik, bertoko ekoizleak bilatuz elikaduraren sektorean kontsumo taldeen bidez eta abar. Inportantea da ekologikoari garrantziaz ematez gainera, bertokoari eta bertoko ekoizleei garrantzia ematea, modu tradizionalan ekoizten arren. Talde txikien borroka bateratua sortzen ari da, gauzak beste ikuspegi batetik baloratzen hasi da jendea, eta lanbide txikietara bueltatzen ari gara: zapatarriak, arropa konpontzea...

Taldearen balorazioa:

Bere jarduera jakinetik abiatuta problematika ezberdinak uztartzen ditu eta modu zehatzean antzematen ditu kontsumo masiboak dakartzan arazoan, ingurumen, genero eta ekonomiari dagokionez. Terminologia ez oso tekniko baina hurbil eta ulergarri bat erabiliz, ekonomia sozialaren ezaugarriak deskribatzen ditu eta aldaketa horretarako genero-ikuspegia ere badu.

Eredugarria da eta ekintzailea da neurri txiki eta zehatzen bitartez. Neurri horiek aldaketa soziala sortu dezakete, nork bere eguneroko kontsumo-ohiturak ezbaian jartzetik hasita, bere diskurtsoa praktikara ekarriz ekintza zehatzekin eta eguneroko konpromisoarekin.

Harreman pertsonalak, konfiantza, pertsonen zaintza, entzutea eta abarren garrantzia nabarmentzea merkatu kapitalistaren haizearen kontra joatea da, hori nagusi baitira indibidualismoa eta lehiakortasuna. Positiboa da iraganeko ereduari begiratzea, baina aldi berean etorkizunerako aukerak sortzeari utzi gabe, lan egiteko modu eta produktu berriekin. Modu horiek antzekotasuna daukate desazkundearen aldeko mugimenduak proposatzen dituenekin, hain zuzen ere nora joan nahi dugun jakiteko nondik gatozen jakin beharra azpimarratzen baitu. Bere izaera baikorra kutsakorra eta adore-emailea da.

MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK

Elkarrizketaren iraupena: 6 min. 44 seg.

Taldearen lokalizazioa: Euskal Herria.

Elkarrizketatua:

Eneko Viñuela, Mugarik Gabeko Albeitarien Euskadiko koordinatzailea.

Elkarrizketaren lekua:

Tolosa, Triangulo plaza.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Antolakundearen filosofia berbera duten beste mugimendu batzuei laguntza ematea; besteak beste, bertoko produktuen dastaketa erabiltzen dute.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Politikan eta lankidetzan aldaketa bat sortzea.
- Iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean elikadura-burujabetzaren alde lan egitea.
- Herritarrak kontsumo-eredu kritiko batera eta egun nagusi denaz bestelako kontsumo- eta ekoizpen-eredu batera gerturatzea.

Web gunea – kontaktuak:

<http://vsf.org.es/>

Elkarrizketaren laburpena:

Euskadiko Mugarik Gabeko Albeitariak antolakundeak modelo kritiko baten aldekoa da, ekoizpen jasangarriko eta euskal kulturari lotutako modelo bat. Uste dute mugimendu eraldatzaileen laguntzarekin elikadura-burujabetza eraiki ahal izango dutela gure herrialdean eta halaber aldaketa globala lortu, mundura justizia ekarriko duena.

Beste eragile sozial aktibo batzuk bilatzen dituzte aldaketaren eragina handiagoa izan dadin, eta horretarako beste mugimendu batzuekin elkarlanean aritzen dira, nekazariak kontsumo-taldeekin hartu-emanetan jarriz, haien aldarrikapenak ikusarazteko eta tokiko aldaketak indartzeko. Jendeari bestelako kontsumo-modu bat eta ekoizpen jasangarriko bestelako eredu bat dagoela erakutsi nahi diote.

Haienzat garrantzitsua da aldarrikapenak maila kolektiboan egin ahal izatea, balioen aldaketa orokorrak eta batez ere elikadurari



dagokionez. Beharrezkoa da haien ustez tokiko produktuak eta baserriarren lanak biziberritzea eta agroekologia indartzea. Uste dute pertsona bakoitzaren konpromisoa beharrezkoa dela, hura baita benetan eraldaketa soziala eraiki dezakeena kontsumo kritiko eta eraldatzaile baten bitartez kontsumo eta modelo logiko batekin.

Taldearen balorazioa:

Diskurtso koherentea eta zehatza dauka, elkarrekin honen oinarrian dagoen ekimen soziala eta antolaketa erakusten du. Hartu beharrekostategiaren ingurua jarrera argia daukate, eta ondorioztatu daiteke, hortaz, euren esparruan egingo duten lana ondo planifikatuta dagoela eta eraginkorra dela.

Nabarmenezkoa da esparru ezberdinetako tokiko kolektiboekin egindako lana (baserri-tarrak, kontsumo-taldeak, bestelako kolektibo sozialak...) eta batez ere interesgarria eta berritzailea da euskal kulturari lotutako jarduerak eta ekintzak egiteko ekimena, jendea erakartzeko eta bertoko kultura eta folklorea balioan jartzeko modu gisa.

OTARRA BIOELKARTEA

Elkarrizketaren iraupena: 30 min. 15 seg.

Taldearen lokalizazioa:

Donostia, Martutene auzoa.

Elkarrizketatuak:

Lourdes Martín (Otarrako langilea) eta Gema Garitaonaindia (Otarraren batzarreko kidea)

Elkarrizketaren lekua: Elkartearen denda.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Denboraldiko produktu ekologiko, landu eta freskoak saltzea. Elikaduraren eta sukaldaritzaren inguruko hitzaldiak eta ikastaroak antolatzea. Bilerak egiten dituzte eta produktu ekologikoen euskal federazioan parte hartzen dute.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Denboraldiko produktu ekologiko, landu eta freskoak saltzea.
- Premia bereziko produktu ekologiko fresko eta landuak prezio egokietan eskaintzea.
- Ontziratutako produktuak saihestea eta pilokako salmenta sustatzea.
- Tokiko nekazaritza indartzea, ahal den neurrian.

Web gunea – kontaktua:

http://rlishband.wix.com/otarra#!__inicio-castellano



Elkarrizketaren laburpena:

Otarra irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Duela 20 urte sortu zuten elikagai ekologikoak batera eskatzeko elkartzen zen lagun-talde batek. Denborak aurrera egin ahala hazten joan zen eta pertsona bat kontratu behar izan zuten erosketak koordinatzeko. Lokala ere aldatu dute eta haren egoera hobetu. Gaur egun lokala Martunen dago, duela 10 urtetik, eta 200 bazkide inguru dituzte.

Produktu ekologiko freskoekin lan egiten zuten talde katalanen eragina izan zuen. Garrantzia ematen diete produktu ekologikoei, lurrarekiko eta naturarekiko daukaten begiruneagatik eta osasun-arrazoiengatik. Ekoizpen ekologikoak begirunez tratatzen ditu aske bizi diren animaliak eta animalia horiei ez zaie hormonarik ematen. Fruta eta barazkiak ere pestizidarik gabekoak dira. Esaten dute ordeka aurkitu behar dela elikaduran eta garrantzitsua dela elikagaiek produktu kimikorik ez izatea, osasuna hobetzeko.

Urte luzez produktuak saltzen aritu dira soilik, bai bazkideek astirik ez dutelako izan edo antolakuntza faltagatik, baina elkartearen 20. Urteurrenarekin batera parte-hartzea sustatu nahi dute tailer eta ikastaroen bidez, eta bazkideei elkarte hurbildu, hala, borondatezko lan gehiago egon dadin, eta bazkideek gehiago kolaboratu eta senti dezaten elkartearen parte direla, ekimen gehiago ere sortze aldera.

Krisiari dagokionez, ez dute uste eragin handirik izango duenik; haien ustez jendeak gehiago hautatuko ditu erosten dituen produktuak, produktu fresko gehiago erosiko ditu eta ela-





boratutakoak baztertuko ditu, garestiagoak dira eta. Baina oinarritzko elikagaiei dagokienez (barazkiak, fruta, lekaleak eta laboreak) ez da prezioan alderik nabaritzen. Uste dute gero eta jende gehiagok kontsumituko dituela produktu ekologikoak, modu osasungarrian elikatzeari gero eta balio handiagoa ematen zaiolako.

Elkartearen erronka nagusietako bat da borondatezko lana sustatzea. Otarraren eta beste elkarte batzuen zailtasunen jakitun dira, baina badute neurri bat dendan kolaborazioa bultzatzeko: bazkide guztiek egin behar dituzte urtean borondatezko hiru ordu eta batzarrera joan behar dute. Hala, hurretik ezagutuko dute egiten ari den lana eta dendaren eta gainerako jardueren berri izango dute. Halaber, ideia berriak eman ditzakete, horien bidez elkarte hazi eta hobeto garatu dadin. Gaur egun, euren kalkuluen arabera, 30 edo 40 lagun inguru dira lantzean behin kolaboratzen dutenak, eta denek ere pozik azaltzen dira parte hartu ahal izateagatik. Parte hartzera deitu egin behar zaio jendeari, emaitzak lortzeko.

Web gune bat sortu dute eta sare sozialetan daude, zuzendaritzaren eta bazkide guztien arteko loturak estutzeko eta lan bateratua sortu ahal izateko eta parte-hartzea handitzeko. Bestalde, beste elkarte batzuekin egiten duten sareko lana aipatzen dute (hala nola Gasteiz, Bilbo edo Iruñekoa). Horri esker, gainontzeko herrialdeetako edozein bazkidek denden sarean kontsumitu eta parte hartu dezake. Izan ere, eko-kontsumitzaileen federazioaren barruan daude.

Genero-ikuspegiari dagokionez, esaten dute produktuak erostera joaten diren gehienak

gizonezkoak direla. Diotenez, ezberdintasunik handiena da ezen gizon eta emakumeen bikoteak dendara batera joaten direnean egiten duten erosketak askoz handiagoa dela dendara gizonezkoak bakarrik joaten direnean baino.

Nabarmentzeko beste alderdi bat da kontsumitzaileei ematen zaien tratua. Bezeroei arreta ematen dieten pertsonak nolabaiteko preskakuntza dute eta aholkuak ematen dizkiete -eta batez ere entzuten diete- informazio bila joaten diren pertsonen, bai informazio orokorra bai osasunaren arlokoa. Ez dute medikua ordeztu nahi, baina asko dira osasun-arrazoiengatik elikadura errotik aldatzea erabakitzen duten pertsonak, eta hasieran galduta egoten dira eta eskertu egiten dute laguntza, entzutea eta pertsonen zaintzea.

Espero dute bazkide gehiago lortzea krisia gainditzeko eta elkarte mantentzeak dakartzan gastuei aurre egiteko. Uste dute haztea ona dela kalitatezko produktu ekologikoak eskaintzen jarraitzeko, bertokoak eta prezio onean.

Taldearen balorazioa:

Otarra elkarteak erakusten digu bertoko merkataritza ekologikoaren aldeko ekimenak jasagarriak eta iraunkorrak direla. Nabarmentzekoa da sarean egiten duen lana eta elkartearen kide guztien parte-hartzea lortzeko egiten duten ahalegina. Elkarte, beharbada, apur bat ahul ibili da parte-hartzeari dagokionez, egindako ahaleginak ahalegin. Badute dagoeneko gizarte- eta ingurumen-sentsibiltatea, baina haien diskurtsoaren oinarria batez ere dendako eguneroko jarduerak dira, hurbileko kontuak. Hortaz, haien lehentasuna ez da, elkarrizketatu diren beste kolektibo batzuen ez bezala, oso ikusmolde sakon, oso eta politikoa izatea. Asmoa ez da hori. Halaber, genero-ikuspegiari dagokionez, ez dute antzematen hain argi azaltzeko modukoa den ekitate faltarik.

Dena den, Otarra elkarteari esker pertsona askok produktu ekologikoak eskuratu ditzakete prezio egokian, ekoizpen ekologikoa eta bertokoa gizarteari hurbilduz, denda-formatu eroso baten bidez. Beste eskualde eta herrialde batzuetako antzeko ekimenekin batera, sare eta eskaintza interesgarria da kontsumo kontziente eta arduratsurako.

Elkarrizketaren iraupena: 18 min. 37 seg.

Taldearen lokalizazioa: Donostia.

Elkarrizketatuak: Inés Méndez, langilea

Elkarrizketaren lekua:

Lantokia, produktu ekologikoen denda.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Kontsumo-taldeak koordinatzea eta bertoko produktu ekologikoen denda kudeatzea.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Tokiko ekoizpena eta produktuen eskuratzearen alde egitea.
- Tokiko ekonomia sustatzea eta gure ingurumena babestea.
- Baserrietan bizitza mantentzen laguntzea.
- Produktu ekologikoen kontsumorako sentsibilizatzea.

Web gunea – kontaktua:

<http://www.saskika.com/eu/>




Elkarrizketaren laburpena:

Saskika duela bi urte sortu zen, "Lur Lan" taldearen barruan 15 urteko ibilbidea zuten nekazari batzuen eskutik, Ikusi baitzuten batera lan egiteko beharrezana, sare bat sortuta. Urteekin Lur Lan hazi egin da, hainbat lokal eta jatetxe ditu eta bi denda ere badauzka. Denda horietako batean dago, hain zuzen ere, "Saskika". Talde hau sortu zen barazkiak beste modu batera saltzeko xedearekin, ez bakarrik merkatu eta dendetan, eta kontsumitzaileei produktuak eskuratzea errazteko. Hala sortu zen Saskika eta ordutik hona astero saski bat egiten du, bertoko eta denboraldiko produktu ekologikoekin. Gainera, saskia etxeraino eramaten du, gaur egun jende guztia ezin delako joan barazkien merkaturara.

Ekoizleei dagokienez, gehienak gizonetakoak dira, nahiz eta gauza jakina dena ekoizlearen atzean familia-egitura dagoela, baserria, eta hari bertan lan egiten duten emakumeek eusten diotela. Erabiltzaileei dagokienez, taldea bi sexuetaok parte hartzen badute ere, lokalera joaten diren gehienak emakumezkoak dira. Kontsumo-taldeek aldaketa bat planteatzen dute kontsumitzeko moduan; izan ere, saskiaren oinarria baratzetan une horretan dauden produktuak dira eta saskiaren planifikazioa aurretiaz egiten da, betiere saioiko produktuen artean hautatuz.

Haien ardatzak dira baserrietako bizitzari eusten laguntzea, tokiko ekonomia sustatzea, kalitatezko bertoko produktu osasun-





tsuen eskuratzea erraztea. Ardatz horiei esker ekoizpenak intentsiboak izateari utzi eta distantzia luzeko garraioak saihesten dira. Saskika elkarteak dituen erronketa-ko bat da kontsumo-eredu hau hedatu ahal izatea, hala jendea kontzienteagoa izan eta sentsibilizatu dadin eta kontsumo-taldeetan parte har dezan.

Saskika taldean parte hartzen dutenak 30 eta 70 urte bitartekoak dira. Elkarrizketa egin zaion pertsonaren arabera, kontsumo-taldeetan parte hartzea norberarentzat hobekuntza bat dakar, baina aldi berean, ekintza horrek eragina du maila globalean, paisaia eta natura jagoteko adibidez. Funtzionamendua nahikoa erraza da: web gunean saskia osatuko duten produktuak erakusten dira, dendako gainerako produktuez gain, dena ere Euskal Herrikoak. Kontsumitzaileek web, telefono edo posta elektronikoko bidez egiten dute eskaria.

Taldearen balorazioa:

Saskikaren kasuan, produktu ekologikoaren inguruan jarrera argia eta irmoa dute, bai eta inguruan produktu horiek lortzeko beharrezkoa den guztia babesteari buruz. Beharbada, sendotu eta zabaldu liteke sarean lan gehiago eginez, baserritarren biziraupen ekonomikorako bitarteko soil bat izatetik harago joanez. Era berean, lagungarria litzateke lan-estrategia bat hartzea genero-berdintasunari dagokionez, kontuan izanik emakume baserritarrek egindako lan ezkutua.

Bere aldetik, taldearen helburuak argi dira hasieratik, betetzen ari dira eta proiektu modernoa da. Kudeaketa-eredua koordinatuta dago eta ezinbestekoa da kontsumitzaile mota guztiengana iristeko, batez ere bertan azaltzen ditugun ekimenen berri ez dituztenagana edota kalitatezko sasoiko eta bertoko elikagai ekologikoak eskuratze-ko astirik edo aukerarik ez dutenengana.

SETEM HEGO HAIZEA

Elkarrizketaren iraupena: 28 min. 45 seg.
Taldearen lokalizazioa: Euskadi.
Elkarrizketatua: Edurne Pujana, Setem Hego Haizeako ki-dea.
Elkarrizketaren lekua: Kristina Enea parke publikoa, Donostia.
Elkarrizketatutako taldearen jarduerak: Arropa garbiaren aldeko kanpainak, finantza etikoen aldeko kanpainak, informazioa jasotzea, txostenak egitea, salaketak, hitzaldiak...
Elkarrizketatutako taldearen xedeak: <ul style="list-style-type: none">• Kontsumo kontziente eta arduratsu batean oinarrituz lan egitea.• Elikadura-burujabetza, bidezko merkataritza eta finantza etikoak sustatzea.• Gure ekintzek hegoaldean duten eraginari buruzko kontzientzia piztea.• Gure kontsumoak maila globalean duen eragina gutxitzea.• Aldaketa soziala sortzea.
Web gunea – kontaktua: http://www.setem.org/site/es/euskadi/

Elkarrizketaren laburpena:

Setem Hego Haizea garapenerako gobernuz kanpoko erakundea da. Estatuan eta Euskadin egiten du lan, bai eta hegoaldeko herrialdeetan. Bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzte eta bertoko eta sasoiko produktuak saltzen dituzte. Azken batean sentibilizatu eta kontzientziatu nahi dute kontsumo arduratsuko bat sortzeko, Euskal Herriko biztanleen egoera sozio-ekonomikoaren hobekuntza bultzatuz.

Hainbat kanpainatan parte hartzen dute, arropa garbiarena kasu, ehungintza-industrian emakumeak direlako egoera txarrean daudenak, hain zuzen ere emakumeak izateagatik ez baitituzte lan-eskubide berberak. Talde hau egoera salatzen eta konpainiak presionatzen ahalegintzen da, haien langileen baldintzak hobetzeko konpromisoa har dezaten eta, nolabait, kontsumitzaileak kontzientzia daitezten. Beharbada, indar handiagoa egiten dute emakumeengan, elkarrizketatuak aipatzen duen bezala, arroparen kontsumoan pisu



handiago dutelako. Haiei erakutsi egiten diete nola arroparen bidez injustizia-harreman hori babesten duten.

Finantza Etikoen aldeko kanpaina bat ere egiten dute, nolabait ere finantzak gure kontsumoaren egunerokoa baitira. Diruarekin gertatzen zen aztertzen hasi ziren eta ikusi zuten bankuek, bezeroak babestu beharrean, bono eta enpresetan inbertitzen zutela, eta aldi berean enpresa horiek armetan inbertitzen zutela eskubide sozialak eta ingurumena errespetatu gabe. Hala ere, bankuei edo aurrezki-kutxei honetaz galdetuz gero, ez dute argi erantzuten eta arreta desbideratzen dute. Inbertitzen duten dirua nora doan ezin dutela kontrolatu esaten dute.

Setem Hego Haizearen helburua da pertsonen informazio egiazkoa ematea, diruarekin gertatzen denaz jabetu daitezten. Pertsonak ahaldu nahi dituzte bankuetan edo aurrezki-kutxetan galdetu dezaten, eta alternatibak bilatuz gero, eskaini ahal izateko, hala nola diren Fiare banku etikoa eta Triodos bank, Coop 57 edo Oiko Credit. Zehazki haiek Fiarerekin lan egiten dute, baina aipatutako alternatiba guztiek funtzionamendu gardena dute, ekimen sozialeko proiektu etikoetan inbertitzen dute eta bakoitzak bere aurrezkiak nora doazen erabaki dezake, proiektu zehatz edo orokorretara, baina beti ere izaera sozialekoak.

Uste dute ezen pertsonen nahikoa informazioa dutenean aldaketa bat eragin dezaketela, diskriminazio- eta injustizia-egoerak salatu ditzaketela eta gizarte-aldaketa bat sortu dezaketela. Horren adibide da "no sand blastyn"

kanpaina. Horretan, egindako presio sozialaren bidez, lortu zen salatutako markak komunikatu bat ateratzea, esateko parka bakeroak egiteko zerabilen teknika erabiltzeari utzi egingo ziola, oso toxikoa baitzen langileentzat.

Beste alde batetik, bankuek sarritan enpresa transnazioaletan inbertitzen dutela salatzen dute. Enpresa horiek gero ingurumena kaltetzen dute, komunitate indigenak bizi diren eremuak suntsitzen dituzte presak, edo petrolio-putzuak eraikiz, eta ondorioz familia asko beste komunitate batzuetara joan behar dute, pertsona batzuk enpresa horietan lanean hasten dira... Setem-en arabera aztertu beharko litzateke horren familietan eta maila kulturean duen eragina. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dute eragin politikoa egitea bi aldeetatik, bai hemen bai hegoaldeko herrialdeetan, herri indigenen eskubideak errespetatu daitezzen.

Amaitzeko, Setem Hego Haizea definituko lukeen leloa ondorengoa izango litzateke: "Egizu bidea mundua aldatzeko". Eraku-

tsi nahi dute kontsumo-ohitura jasangarri eta kontzienteen bitartez, gizarteak erosi eta botatzen duen guztia nora doan hausnartzen bada. Mundu aldatu daitekeela. Informazioa eta sentsibilizazioa darabilte, ez jendea gaizki sentiarazteko, baizik eta eraldaketa sozial eta politiko egingarri eta egiazkoa sortzearen, zeinean pertsona bakoitza botere- eta aldaketa-sortzaile baita.

Taldearen balorazioa:

Setem Hego Haizea ibilbide eta ezagutza nabarmena duen antolakundea da, eta bere diskurtsoa oso integrala eta osoa da. Lan-ildoak argi dauzkate eta aldaketa sozial integralaren norabidean doazen hainbat gai jorratzen dituzte: eguneroko kontsumoa, langileen eskubideak, banku etikoa... Genero-ikuspegi kritikoa daukate. Aldaketa horren indarra pertsonen ahalmenean oinarritzen dute. Horregatik, beren bidea sendoa eta eraginkorra da, zenbat eta babes handiagoa lortu, orduan eta handiagoak izango baitira lorpenak.



UZTARO KOOPERATIBA

Elkarrizketaren iraupena: 23 min. 32 seg.

Taldearen lokalizazioa: Beizama.

Elkarrizketatua:

Jokin Agirrezabalaga eta Itziar Arkonada, gizon bat eta emakume bat Uztaroko kideak.

Elkarrizketaren lekua:

Laneko lekua, baserria.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Sentsibilizaziorako, informaziorako eta kideak hartzeko hitzaldiak eta kanpainak. Agronekazaritzari buruzko jardunaldian laguntzea. Autofinantzatzeko kontzertuak antolatzea.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Elikaduraren zikloa egitea.
- Bertoko haziak berreskuratzea, hala hazien autonomia erdietsiz.
- Nekazaritzarako lursail gehiago eskuratzea.

Web gunea – kontaktua:

<http://uztarokooperatiba.wordpress.com/>



Elkarrizketaren laburpena:

Uztaro produktu ekologikoak ekoizten dituen kooperatiba da, baina ez du egiten normalean egiten den moduan, hau da, hileroko kuota bat ordainduz eta trukean barazkiak jasoz: proiektu honetan, denak dira horren parte eta parte hartzen dute bai landatzean bai uztaldian. Batzarren bidez funtzionatzen du eta kanpoko eraginik ez izaten saiatzen dira funtzionamenduari dagokionez. Sortu zelarik, lehen sektoreko kontsumo-ohiturak aldatzen saiatzen zen, eta bere ardatz nagusiak agroekologia, autogestioa eta asanblearismoa ziren. Hori dela eta, proiektua abiarazi zenean elikadura ikuspuntu politiko argi batekin lotu nahi zen, eta gaur egun ere horri eutsi egiten zaio.

Gaur egun bi hektarea dituzte eta 48 familia-unitateri ematen diete zerbitzua. Familiak ez dira kooperatibaren jabe, hazien luraren jabe baizik. Lanean ari dira bertoko haziak lortzeko, horien autonomia osoa eskuratzeko, multinazionalak egiten dutenaren aurka. Gainera, lursail guztiak jabetzarik gabe edukitzeak haien lana zailtzen du eta egoera hori oro har Euskal Herrian bizi denarekin estropatzen dute. Egoera honen arrazoiak argi daude haientzat, eta uste dute egungo egoeraren jatorria dela industrializazioaren ondoren eta luraren prezioa goraka doan honetan, jabeak oraindik ez daudela antzinakoak ez diren beste parametro batzuetan. Horregatik, laborantza-lur gehiago edukitzen saiatu arren, ezin izan dituzte eskuratu.

Agroekologiaren alde egiten dute ez dutelako produktu toxikorik erabili nahi eta ikuspegi





osasungarriarekin lan egin nahi dutelako. Halaber, "agro" kontzeptuari dagokionez, beraien jarduerari egungo egoera modu autogestionatuan aldatu nahi duen mugimendu politikoa izatearen indarra eman nahi diote.

Emakume eta gizonak berdintasunez parte hartzen dute erabakiak hartzeko orduan, nahiz eta nabarmendu behar diren emakume nekazariak dituen zailtasunak: makineria gizonen gorputzerako pentsatua eta eginda dago eta hortaz emakume batentzat esfortzu handiagoa dakar lan egiteak. Antolakundearen barruan lana banatuta dago, baina norberaren izaeraren arabera, ez sexuaren arabera.

Sarean egiten da lan Basherrri mugimenduarekin, zeinak barne hartzen dituen Gipuzkoak irizpide berdinekin eta filosofia berdinarekin lan egiten duten talde guztiak, agroekologiaren filosofia hain zuzen ere. Eskualdeko ekimenen babesa ere badute, esaterako inguruko gaztetxeena. Elikadura-burujabetzaren aldeko Euskal Herriko aliantzan ere parte hartzen du. Esan daiteke Gipuzkoan erreferentea dela. Baserritik ikasteko nahia duten pertsona asko pasatzen dira eta ikasketak beti izaten da elkarrenganakoak. Sindikatuekin ere lan egiten da, eta azken batean

hainbat ekimen babesten dituzte, betiere haien sorrerako irizpideak errespetatzen badira.

Etorkizuna baserrietan dagoela uste dute, hiriak gainbeheran daudelako, eta lurrarekiko eta naturarekiko atxikimendua berreskuratu behar dela esaten dute. Krisi sozial eta ekonomikoan nekazaritza da hartu beharreko bidea; bada nahikoa lur pertsona guztientzat eta uste dute kapitalismorako alternatiba bat sortzen joan beharra dagoela.

Taldearen balorazioa:

Diskurtsoa osoa da eta kideen analisi-gaitasuna globala eta zabala da. Horrekin batera, ahalik eta autonomia handiena bilatzen dute, eta ondorioz aldaketarako ekimena bere lanaren ia esparru guztietara zabaltzen da. Horri gehitzen baldin badiogu beste talde batzuekin indarrak batu nahi dituztela (ardatz zentralak baztertu gabe), Uztaro eredu garri bihurtzen da haren zintzotasun, koherentzia eta aldatetarako konpromisoari dagokionez. Noski, talde guztiek bezala, badituzte gabeziak eta zailtasunak, baina badira horiek jakitun, eta hori urrats handia da. Zailtasun horiei aurre egiteko gaurdaino izandako printzipioak eta ibilbidea baliatu nahi dituzte.

ZERO ZABOR

Elkarrizketaren iraupena: 4 min. 52 seg.

Taldearen lokalizazioa: Euskal Herria.

Elkarrizketatuak:

Oihana Ugarte eta Ander Agirrezabala, emakume bat eta gizon bat Zero Zabor-eko kideak.

Elkarrizketaren lekua:

Tolosa, Triangulo plaza.

Elkarrizketatutako taldearen jarduerak:

Konposta sortzea eta zaborra lehengai bihurtzea. Sentsibilizazio-hitzaldiak eta kanpainak.

Elkarrizketatutako taldearen xedeak:

- Biztanleriaren hondakinak gutxitzea, horretarako horiek sailkapenean oinarrituta, eta plastikozko ontzien erabilpena minimizatzea, ingurumen-inpaktua murrizteko.
- Zaborra lehengai bihurtzea.
- Gizarteak kontsumoa gutxitzen ahalegintzea.

Web gunea – kontaktua:

<http://www.gipuzkoazz.com/zerozabor/>



Elkarrizketaren laburpena:

Parte-hartzaileek ingurumen jasangarri baten beharra nabarmentzen dute. Hondakinen kudeaketan zentratzen dira, gaur egun gehiegi sortzen baitira. Haien aburuz, hondakinik onena sortzen ez dena da, izan ere, gaur egun natur baliabideak agortzeaz daude eta kutsadura oso handia da, neurri handi batean hondakinak erretzeak sortua. Hori dela eta, gurea da hondakinak egoki kudeatzea, ziklo-aldaketa bat gertatu dadin.

Gure sustraietara itzultzea proposatzen dute, naturaren ziklora bueltatzea, ahal dela gure hondakinak konpost bihurtuz. Hau da, egungo sistematik sistema zirkular batera joatea, zeinean hondakinak lurre-rako ongarri bihurtuko diren. Horretarako nekazariekin lan egitea proposatzen dute, sortutako konposta haiei eskaintzea. Hala, ingurumenerako kaltegarriak diren eta gainera enpresa multinazionalak sortutakoak diren ongarri kimikoen kontsumoa murriztuko litzateke.

Taldearen balorazioa:

Zero Zabor hondakinen gaian zentratzen da. Gure kontsumo-ohituen zuzeneko ondorioa da gai hori. Ideia sendo, argi, erraz eta zuzenekoak azpimarratzen dituzte eta horiekin gaur egun hondakinen inguruan dagoen egoera azaltzen dute, bai eta hondakinak sortu eta kudeatzearen inguruan aldaketa bat gertatzeko eman beharreko pausoak. Horretarako, azpimarratzen dute bai norbanakoaren ardura (kontsumo kontzientea, berrerabiltzea, edukiontziak gutxitzea) bai goragoko maila batean gertatu beharreko aldaketak, hala nola legeen arloan. Interesgarria da, beraz, ikusmolde bikoitza dutela eta bi maila horietan proposamenak dituztela: zer egin dezake gutako bakoitzak egunero gure etxean eta zer egin beharko luke te erakundeek aldaketan alde egiteko.

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

SZalantzarik gabe, gaur egun Gipuzkoan kontsumo kontziente eta arduratsuaren inguruan dauden alternatibei buruzko lan honetan ideia asko aurkitu dira, haietako batzuk ia talde guztiek partekatuta eta beste batzuk soilik talde jakin batzuek azaldu dituzte, ibilbide sendoagoa dutenek hain zuzen. Dena dela, gai ezberdinak jorratzen dituzten taldeak izanda eta bakoitzak egungo sistemarako alternatibak azaltzen dituztenez, haietako bakoitzaren ekarpenari esker egungo kontsumo- eta ekoizpen-eredurako alternatiba bat jasotzen duen diskurtso oso eta integrala osatu daiteke.

Nahiz eta talde bakoitzak bere filosofia eta beste ikuskera globala duen eta modu ezberdinean antolatzen den –kooperatibak, elkarteak, gobernu kanpoko erakundeak, langile boluntarioak edo soldatapekoak- ekintzak sarri askotan norabide berean doaz eta sareko lana eta elkarrekiko laguntza ezaugarri ia orokorrak dira.

Asko dira beraz haien azterketan eta jardueretan antzeman ditzakegun ideia nagusiak. Horiek ekonomia sozial eta solidarioa eta eredu global bidezkoagoa egingo lukete, jarraian ematen ditugun ezaugarriekin.

Eguneroko kontsumoak elikadurarekin duen harremana oinarri hartuta, beharrezkoa da herritarren beharrezanez egokitutako ekoizpen bat. Hori dela eta, elkarriketatutako talde batzuen ardatzak elikadura-burujabetza eta elikadura ekologikoa eta bertakoa dira. Gainera, elikadura hori sasoiko produktuetan oinarritzen da, kontsumitzaileek ekoizle txikiei erositakoak, uste dutelako distantzia luzeko garraioan, ekoizpen intentsiboan, merkantilizazioan eta onura ekonomikoan oinarritutako egungo modeloa kaltegarria dela osasunerako zein gizarte osoarentzat eta naturarentzat.

Produktua ekoitzi ondorengo hurrengo urratsa da produktua banatzea eta, ahal bada, merkaturatzea. Taldeek metodo ezberdinak darabiltzate horretarako. Batzuek bitartekaridun ohiko salerosketaz baliatzen dira, beste batzuek bitartekariak saihestea nahiago dute ekoizleen baldintza ekonomiko eta sozial duinak errespetatzeko, beste batzuek txanpon-sistematik harago joan nahi dute eta bestelako trukatzeko modu bat sustatu (trukaketa, zerbitzu eta jakintzen elkar banaketa eta abar)... baina guzti-guztien oinarria da, lehen esan bezala, ekoizpen jasangarri eta ekologikoa, eta denak zentratzen dira



nagusiki bertoko produktuetan. Produktuak eta elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta merkaturatzeko modua berton erabakitzearen aldekoak dira guztiak, elikadura-burujabetzak aldarrikatzen duen bezala, nahiz eta sarritan izen horrekin aipatzen ez den.

Oinarrizko kontzeptu horietan talde askok euren analisisietan erakusten dituzten ideiak daude, adibidez: Ekonomia soziala, konfiantzazko harremanak, autogestioa, elkarrekiko erantzukizuna, konpromisoa edota aldaketa ikuspegi zeharkakoa eta global batetik bereganatzea. Horretarako guztirako beharrezkoa da parte-hartze komunitarioa. Hori gabe, talde asko ezin izango zitezkeen sortu. Baina inolako zalantzarik gabe, egungo sistemaren zurrunbiloak bazterrean uzten ditu pertsona eta komunitate asko, eta aldi berean sistema pairatzen duten pertsonak kritikoago bihurtzen ditu eta elkartzera behartzen ditu, azterketa partekatuak sortzen duen konfiantza oinarri, balio sozial eta pertsonalen aldaketa bat bultzatzeko. Pertsonen eta naturaren zaintza, konfiantzazko harremanak eta entzuketan alternatiba jasangarri eta erreal batera eramango gaituen bidea izan daitezten.

Taldeek hainbat arlo hartzen dituzte: haur eta emakumeen higienerako gaiak -erabili eta bo-

tatzekoak ez direnak-, arropa garbiaz sentsibilizatzeko kanpainak, banku etikoa, produktu, jakintza eta zerbitzuen trukaketa, tokiko azoka eta merkatuak, kooperatibismoa, dibulgaziozko materiala eta kontsumitzailearentzat, ekoizlearentzat eta inguruarentzat elikagai osasuntsuak. Horrek guztiak bizitzeko ia beharrian guztiak jasotzen ditu, eta horri esker talde guztien artean diskurtso integrala sortzen da. Hala ere, genero-ikuspegia ez da zeharkako ikuspegi argia, eta beraz partekatutako jarduerak, berdintasuneko parte-hartzea eta ezin sektorerik ez baztertzea betetzeke dauden zereginak dira gaur egungo diskurtsoan eta praktikan. Edonola ere, egia da talde batzuek badutela ikuspegi hori eta hedatzen saiatzen direla kon-tuan hartzen ez den esparruetara.

Egia da, halaber, badela eraikitako alternatiba bat oinarrizko beharrian guztietarako, baina oraindik ere hutsuneak sumatu daitezke oinarritzotik harago doazen arloetan. Ez beti, hala ere. Hau da, talde askok ibilbide laburretan merkaturatzeko garrantzia azaltzen badute ere, horrek ez du ekiditen ezinbesteko energia-gastua eta ibilbide horiek egiteko petroliorekiko dagoen mendekotasuna.

Auzi horretaz gain eta energiaren eta erregai fosilen kontsumoaren gaiarekin jarraituz, gauza jakina da gertatzen ari den klima-aldaketaren arrazoietako bat direla. Hortaz, energia elektrikoa, argia edo beroa lortzeko beharrezkoa izango da egungo modelo ordezteko alternatibak sortzea; horren adibide ona izan energia berriztagarria sortu eta kontsumitzeko Goiener kooperatiba. Adibide horrek balio digu pentsatzeko harago eraiki beharra dagoela, bizitzaren oinarrizko beharrianei buruzko diskurtso osa izateaz gain (elikadura, arropa...), beharbada une honetan urrunak eta konplexuak izan daitezkeen gaiei buruz pentsatzen joan gaitezen, uste baino hurbilago baitaude.

Amaitzeko, nabarmentzekoa da elkarrizketatutako talde batzuek egindako lan handia. Talde horiek jarraitzeko ereduak izan daitezke Gipuzkoan eta beste herrialde batzuetan aplikatzeko modukoa. Izan ere, Biolur, Auzolan, Uztaro era Bagara, esaterako, erreferentziakoak dira eta konpromiso eredugarria azaltzen dute agroekologia, sareko lana, konponbide integralak edota hezkuntza-irizpideekiko. Nahiz eta ezberdintasunak eta berezitasunak dituzten, egiten duten lanari esker itxaropena dugu etorkizunari begira, proiektu hauekin

guztiekin –batzuk berriak, beste batzuk asko finkatuak- komunitate gisa aurrean dugun di-kotomian beldurrik gabe hauta dezagun auke-rarik kontzienteena, arduratsuena eta jasan-garriena, bai guretzat, bai komunitatearentzat, bai gugandik urrun bizi diren pertsonentzat eta ama lurarentzat, eta jakina, gure ondoren etorriko diren belaunaldientzat.

ESKERRAK

Prozesu hau guztia ez zen posiblea izango per-sona eta kolektibo hauen parte-hartze desin-teresaturik gabe. Guzti-guztiei, eskerrik asko:

Eider Ezeizaeta eta Nagore Ezeiza
AIZTONDOKO DENBORA BANKUA

Ohiana Orkolaga eta Alaitz Mujika
ANTIGUAOTARRAK

Jasone, Peio, Gorka, Xenki, Leire eta Ane
AUZOLAN

Iraitz Agirre eta Nagore Iraola
BAGARA

Miriam Arrizabalaga, Sabrina Pato, Tomás Larrañaga, Adrian Sánchez eta Maje Gorritxo
BIOLUR

Peio Gaio
ELKARSAREA

Jesús Ochoa
MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK eta FIARE

Garbiñe Tolosa
MARIPURI TIJERITAS

Eneko Viñuela
MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK

Lourdes Martín eta Gema Garitaonaindia
OTARRA BIOELKARTEA

Inés Méndez
SASKIKA

Edurne Pujana
SETEM HEGO HAIZEA

Jokin Agirrezabalaga eta Itziar Arkonada
UZTARO KOOPERATIBA

Oihana Ugarte eta Ander Agirrezabala
ZERO ZABOR

EMAÚS FUNDAZIOA

TOLOSAKO DENBORA BANKUA

SAN TELMO MUSEOA

AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOA

ERANSKINA
GENERO ETA ELIKADURA
BURUJABETZA GIDA



1. Atarikoa

1990ko hamarkadan Edgar Morinen idatzia irakurtzen genituenean, Lurra defendatzen zuela eta *"maila globalean pentsatu toki-mailan jardun, toki-mailan pentsatu maila globalean jardun"* proposatzen zuela, eta gogoeta horiek hedatzen aritzen ginenean, oraindik ez zegoen gaur bezain zabaldua elikatze eskubidea, elikadura-burujabetzaren kontzeptuaren ikuspegitik. Hala ere, denborak aurrera egin ahala eta La Via Campesinaren ahalegin handiaren ondorioz, diskurtsoaren legitimitasuna erdietsi da, bai eta proposamen alternatibo bat ere, baliabideekin harria, mugarik gabe kapitalista eta patriarkal den ekonomia baten ordeztu, pertsonen erdiak, emakumeak alegia, azpiratuta dauzkan ekonomia baten ordeztu.

Mugarik Gaben dugun xedea da, nazioarteko lankidetzarako elkarte gisa, **eraldaketa soziala, pertsonala, politikoa, ekonomikoa eta egiturazkoa bilatzen duen giza garapen integral bat lortzeko** lan egitea. Horretarako honako hauek sustatzen ditugu: genero-ekitate, kultura-aniztasuna, eta parte-hartze horizontala; burujabetza-pertsonala eta askatasuna, pertsonen eta gizartearen garapenerako oinarri gisa; koherentzia, elkartasuna eta elkarren arteko laguntza, justiziaren ezinbesteko osagai gisa; eta ingurumenaren errespetua, pertsonen eta gure ingurunearen arteko harremanaren gako gisa.

Arlo pertsonala beti izan da oso alderdi garrantzitsua elkartearen barruan. Alde batetik, gure egin dugu pertsonala dena politikoa era badela dioen feminismoaren irakaspena. Beste aldetik, pentsatzen dugu aldaketa orok baduela landu beharreko osagai pertsonal bat, osagai sozialaz eta politikoz gain. Aldaketa eta gizarte-eraldaketa horiek aurrera eraman ahal izateko, gure balioen artean hiru nabarmentzen ditugu, alegia, burujabetza pertso-

nala, koherentzia eta gizonen eta emakumeen arteko ekitatea.

Burujabetza pertsonala (ahalduntzea, autonomia, autoestimua) pertsona bakoitzak bere bizitza erabakitze eta gauzatzeko duen ahalmena da, barne-askatasun bat da. Burujabetza hori erabiltzea pertsona baten bizitzaren alderdi guztiei dagokie, dagoen gizarte-testuinguruaren barruan, autodeterminazioa, zorientasuna eta auto-realizazioa erdiesteko gehien komeni den eran. Autoestimua ez da ideia ona berez, besterik gabe. Norberak ekiteko duen ahalmenaren kontzientzia da, norberaren duintasunaren kontzientziari elkarturik.

Koherentzia da norberaren zein kolektiboaren kontraesanak ahalik eta gehiena murriztea, balioen arabera jardunez eta arduraz jokatzu norberaren eta kolektiboaren bizitzako harreman eta maila guztietan. Printzipio teorikoen eta eguneroko jardunaren artean, ekintza politiko-sozialaren eta aldaketa pertsonalaren artean, koherentea izatean datza. Badu loturarik, halaber, ez pentsatzen duguna, baizik eta **egiten duguna garela** dioen printzipioarekin, **nola egiten dugun** zer egiten dugun bezain garrantzitsua izanik.

Ekitateak justizia esan nahi du, aniztasuna aitortzea da, hori inongo bereizkeriaren kausa izan gabe. **Genero-ekitatea** tratamendu neutro batez haraindikoa da; emakumei aukera-berdintasuna izatea galarazten dieten desabantaila historiko, sozial eta kulturalak konpentsatzeko neurriak har daitezela eskatzen du.

Burujabetza pertsonalaz harago, gure errespetua eta defentsa herrien burujabetza-

ra ere hedatzen da, eta, zehazkiago, dagoeneko lurrerako eskubide batzuk aldarrikatzen dituzten herri indigenekin egiten dugun lanera. Burujabetza pertsonalak beti izan behar du elkartuta lurraldean ekoizten eta kontsumitzen diren elikagaien gaineko burujabetza bat. Badakigu ezin esporta daitekeela hemen dugun garapena; bestela, hiru planeta baino gehiago beharko genituzke. Horrek gure bizimodua zailtzen jartzera garamatza, eta soiltasun handiagoa bilatzera, pertsona guztiak ongi eta planetarentzat jasangarriagoa den modu batean bizi ahal izateko. Arestian aurkeztu diren balioek –beste herri, herrialde edo kolektibo batzuek bultzaturiko beste garapen-eredu batzuen alde (*ongi bizitzea* edo *desazkundea*, besteak beste) egiten dugun apustuarekin batera– elikadura-burujabetza funtsezko alternatibatzat jotzera eramán gaituzte, gizartea, ekonomia zein ingurumena eraldatzeko duen ahalmena dela eta.

Gaur egun, krisi bat pasatzen ari gara sistemikoa dei diezaioketuna, hots, ez da sektoriala edo aldi baterakoa, balioen inguruko krisia ere badena baizik. Krisi hori bizitzaren alderdi guztietara hedatuta dago, eta aspalditik pairatzen eta salatzen ari garen krisi soziala, zainketen ingurukoa, politikoa eta ekologikoa larriagotzen du. Bateriaezinak dira hazkundean oinarritzen den eta energia-kontsumo handia egiten duen sistema bat –batetik– eta ekologiaren eta ingurumenaren arloko krisia, gero eta larriagoa, konpontzea –bestetik–, eta elikadura-burujabetza alternatiba bat da horretarako.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 25. artikuluan hau dago ezarrita: "*persona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, osasuna eta ongizatea bermatuko diona, eta batez ere janaria*"; hala eta guztiz ere, elikadurak eskubide izateari utzi, eta salgai bihurtzen da. Sistema kapitalistak, egungo krisi sistemikoa sortu duen berak, agerian utzi du ez dela gauza bidegabekeria sozialak eta globalak konpontzeko, eta, aldi berean, nekazaritza industrialak sustatzen du, elikadura-burujabetzaren printzipioen guztiz aurkako printzipio batzuk dituen (izan ere, elikadura-burujabetzak nekazarien ereduak aldeztu du).

La Via Campesinak 1996an –gizonezko zein emakumezko nekazarien, eskala txiki eta ertaineko ekoizleen, landa-eremuko emakumeen, indigenen, lurrik gabeko jendeen, landa-eremuko gazteen eta nekazaritzako lan-

gileen nazioarteko mugimendu gisa– lehen aldiz elikadura-burujabetzaren kontzeptua FAOren Elikadurari buruzko Munduko Goi Bileran (Erroma) sartu zuenetik, antolakunde eta mugimendu sozial askok bere egin dute, munduko elikadura eta nekazaritza arriskuan jartzten dituztenei aurre egiteko.

Mugarik Gaberen ikuspegitik, **elikadura-burujabetza** da herriek elikagai osasungarriak eta kulturalki egokiak, metodo iraunkorrak erabiliz ekoiztea, izateko duten eskubidea, bai eta beren nekazaritza- eta elikadura-sistema propioak zehazteko eskubidea ere. Nekazarien ekoizpen-eredu iraunkor bat garatzen du, komunitateei nahiz haien ingurumenari mesede egiten diena. Elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten helburuak, beharrianak eta bizimoduak elikadura-sistemen eta elikadura-politiken erdigunean kokatzen digu, merkatuen eta enpresen eskaeren aurretik.

Elikadura-burujabetzak elikagaien toki-mailako ekoizpenari eta kontsumoari ematen die lehentasuna. Herrialde bati bere tokiko nekazariak inportazio merkeetatik babesteko eta ekoizpena kontrolatzeko eskubidea ematen dio. Lurrak, lurraldeak, ura, haziak, azienda eta biodibertsitatea erabili eta kudeatzeko eskubideak elikagaiak ekoizten dituztenen esku egon daitezten bermatzen du, eta ez enpresa-sektorearen esku. Elikadura-burujabetza, gaur egun, indar handieneko erantzunen artean agertzen da elikagaien, ekonomiaren eta klimaren aldetik egun dagoen krisiari aurre egiteko. Haren asmoa da lurra errespetatzea, ekoizpen agroekologikoaz eta lurra zaintzen laguntzeko ikuspegi biomimetiko batez (natura imitatzea) baliaurik. Beharbada, natura imitatzea lagungarria izango zaigu geure bizitokia, geure planeta, kontserbatzen eta gure etxe bihurtzen.

Elikagai-ekoizpenaren birkokatze horrek egitura-aldaketa sakona dakar berekin, eta aldaketa horretan ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko lotura ere aldatzen da, elkarrengana hurbilaz eta beraien arteko harremanak estuagoak bihurtuz, kontsumo-taldeetan eta beste merkatu-eremu zirkuitu labur batzuetan gertatzen den bezala, adibidez. **Desazkundeko** gizarte bat izango litzateke elikadura-burujabetza garatzeko eta **kontsumo kontziente eta arduratsua** aurrera eramateko egoerarik egokiena.

Elikadura-burujabetza nekazaritza-arloko ekoizpenerako eta kontsumorako eredu bat izango bada, antolatzeke era berri batzuetan oinarritu beharko da. Pertsonen eta lanaren antolaketa horren bereizgarria izango da horizontala, parte-hartzekeoa, demokratikoa eta bidezkoa izatea, bai eta **emakumeen eta gizonen artean ekitatiboa** ere. Ezin dira bistatik galdu emakumeen eta gizonen arteko **botere-banaketa**ren aldaketak: parte-hartze politikoa, etxeko eta zainketako lana, enplegua, gure gorputzen gaineko autonomia... mundua ulertzeko era berri bat eraikitzeari dagozkion feminismoaren ikaskizunak berrartuta. Oraingoan, zehazki, elikagai-ekoizpenaren arloko botere-banaketari behatu behar diogu, nekazarien rolei, emakume nekazarien ahalduzeari, eta landa-eremuan dagoen botere-banaketari.

Historian zehar, emakumeak izan dira nekazaritzaren asmatzaileak, hazien eta sendabide naturalaren zaintzaileak; mundu-mailan, elikagaien erdia baino gehiago ekoizten dute (% 80 ere herrialde txirotuetan), eta, hala ere, gizartean izan duten aitormena urria izan da. Ekonomian, emakumeak ikusezin atxiki dira, eta familiako laguntzat jotzera mugatu dira, lan-eskubiderik gabe, lanaren aitormen sozialik izan gabe. Horrez gain, lurra, lurraldea, kreditua, ura, haziak, eta ekoizpen-bideak erabiltzeko izan duten aukera askoz txikiagoa izan da gizonena baino. Alderdi horiek guztiak aintzat hartu behar dira, sistema berri batean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak berriz ez sortzeko. Emakume nekazariak gogetarako, eztabaidarako eta protagonismorako beren guneak izan behar dituzte erabakiak hartzeko guneetan, nekazari-mugimenduaren barruan bertan, genero-ekitatearekiko elikadura-burujabetza bat sustatze aldera. Era berean, antolakundeek eta gizonen konpromiso politikoak hartu behar dituzte beren gain, bizia zaintzeko ardurak eta botereak banatzeko.

Tradizioz emakumeei esleitu zaien gizarte-rola dela medio –zainketen ardurari lotua (haurrak, familia, baratzea, beste pertsonak, natura, baita mundua bera ere... zaintzea)– joesera handiagoa dute kolektiboa eta elkartasuna babestera eta balioestera, bai eta ingurumena eta elikadura-kultura ere, biziaren manteuaren oinarri azken hori. Kontrara, sexuaren araberako lan-banaketa tradizionalagatik, gizonak historian zehar etekin ekonomikoa ateratzeko ekoizpen hutseko zereginei lotu izan

zaizkie, eta emakumeek, aitzitik, autokontsumorako eta tokiko merkaturako ekoizpenaren garrantzia babesten dute. Tradizioz emakumezkoenak diren praktikak, familiaren elikadurarekin, osasunarekin eta natura zaintzearekin lotura duten praktikak izanik –emakumeak esentzializatzean edo emakumetasuna idealizatzean erori gabe–, neurri handiagoan datoz bat elikadura-burujabetzaren printzipioekin. Harremanezko praktika berri batzuetan, naturarekiko harremanei zein emakumeen eta gizonen arteko harremanei dagokienez, oinarrituriko eredu berri bat eraikiko bada, nahitaez gure egungo praktikak berrikusi behar ditugu generoko azterketa baten bitartez, eta tradizioz emakumeenak diren balio horiek, naturarekin errespetu handiagoko harreman bat izateko egokiak direnak, berreskuratu behar dira, balioak gizarte guztiarentzat definituz.

Zenbaitetan, elikadura-burujabetzaz hitz egiten denean, nekazarien eskubideetan pentsatzeko joera izaten da, eta ez, halabeharrez, emakume eta gizon nekazarien arteko ekitatean. Horrexegatik, funtsezkoa da elikadura-burujabetza **ikuspegi feminista** batetik lantzea, gizonen emakumeen gainean menderakuntza izateko egungo sistema deseraikitzea berekin ekar dezan haren eraikuntzak. Elikadura-burujabetza ezin eraiki daiteke **sistema patriarkal** baten gainean, zeren proposamen berrietan desberdintasuna berriz sortzen ariko baikinake.

Ekologismoak agerian uzten du ekonomiak ez duela aintzat hartzen eta ikusezin bihurtzen duela lurraren ekarpena (haren ustiapenari zein ekoizpen-prozesuek sortzen dituzten hondakinak xurgatzeko gaitasunari dagokienez), eta feminismoak, era berean, salatzen du ekonomiak ezkututzen eta balioz gabetzen duela berrekoizpen sozialeko eta bizia zaintzeako lana –hezkuntza, osasuna, elikadura–, gehienbat emakumeek egiten duten lan-mota bat, hain zuzen. Pentsamendu feministak eta ekologistak elkar hartu behar dute, emakumeentzako bidezko alternatiba bat bermatzearren. Aliantza hori proposamen ekofeministetan mamitzen da, besteak beste; halakoak aurrerago garatuko ditugu.

Desazkundeko edo ongi bizitzean oinarritutako gizarte batzuetan –tokiko elikagai-ekoizpena, berrekoizpena, eta biziaren iraunkortasun naturala eta soziala bermatzeko helburuz tinko dihardutelarik–, emakumeen gaitasun eta jakintzak eta mugimendu indigenak zein mugimendu feministak bilduriko eza-



gutzak funtsezkoak izango dira emakumeen eta gizonen balioak, gaitasunak eta ikaskizunak beraien aniztasunean (etnia, adina, sexu-joera, eta abar) berrartzen dituzten praktikak unibertsal bihurtzeko, berdintasun handiagoko ereduak eraikitze aldera.

Azterketa horretan oinarri harturik, landa-ingurunean eta nekazarien artean gertatzen diren genero-desberdintasunak **salatzeko**, ikusgai bihurtzeko eta haietaz kontzientzia sortzeko beharra onartuz, bai eta Iparralde zein Hegoalde globaletan estrategia **alternatiboak** bultzatu, zabaldu eta abian jartzeko beharra ere, **genero-ekitatearekiko elikadura-burujabetza** lan-ildo estrategikoetako bat bihurtu da Mugarik Gaberen barruan.


Gure asmoa da pertsonen eta herriek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko beren politikak zehazteko duten eskubidea, zer ekoitzi eta nola kon-tsumitu erabakitzeko eskubidea, aldarrikatzea. Horretarako, era berean, hartzen den erreferentzia Nyeleniko 2007ko elikadura-burujabetzaren aldeko emakumeen adierazpena da; han, 86 herrialdetako baino gehiagoko hainbat emakume mundu kapitalista eta patriarkala aldatzearen esku hartzeko zuten asmoa berretsi zuten, sistema horrek merkatuaren interesei ematen baitie lehentasuna pertsonen eskubideen aurretik, eta emakumeak bereziki kaltetzen baititu. Eli-

kadura-burujabetzaren alde apustu eginez, egun-egoerari egiten diogun salaketak emakume nekazariak nozitzen duten desberdintasun-egoeran, lurra izateko haien aukera-faltan, Afrikako bereizkuntzarik gabeko lur-salmentetan, baliabide-gabezia, merkataritza askeko Europako akordioetan... jarriko du arreta, hots, eragin negatiboa duen eta emakume nekazariak garapen pertsonala eta talde-garapena (beren bizitzako esparru guztietan eta haien elikadura, zehazki, autonomia lortzeko) erdiestea eragozten duen edozer-tan, bai eta haien proposamenetan ere.

Maila txiki eta handiko aldaketak lortzeko sareak sortzera bideratutako ahaleginak beharrezkoa du La Via Campesinak, kontinente guztietako nekazariak elkartzea lortu duen mugimenduak, eginiko proposamenak alde-ztea. Horrekin batera, Emakumeen Mundu Mar-txak ere bere egin du elikadura-burujabetzaren aldarrikapena.

Labur esanda, Mugarik Gabek genero-ekitatearekiko elikadura-burujabetzaren alde egiten duen apustua, sistema patriarkalaren eta kapitalistaren aurreko beste alternatiba bat gisa, beharrezkoa bihurtu da, **maila globaleko apustua delarik, baina tokiko jarduerak dituen**, oso zehatzak, nazioarteko lankidetzaren eta garapen gizatiar, ekitatibo eta iraunkor baterako hezkun-tzaren gure eremu berezitik.

2. Nekazaritza industrialak eta elikadura-eredu globalizatuak emakumeen bizitzan duten inpaktu berezia



XXI. mendean bertan, FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearen datuen arabera, ia **1.200 milioi pertsona** goseak daude, % 70 nekazariak direlarik, eta haietatik, % 70 emakumeak eta neskatok. Bitartean, munduan ekoizten den zerealetik, % 60 ganadu industrialak elikatzen erabiltzen da, eta batez beste 12.000 km egin behar izaten du helmugaraino, Europako edo Ipar Ameriketako abeltegietaraino, hain zuzen. Monolaboreen beste helmuga nagusia gure ibilgailuak elikatzen dituen biodieselak ekoiztea da. Egoera lotsagarri hori nekazaritzako elikagaien sistema globalizatuak eta nekazaritza industrialak sortzen dute, haien xedea ez baita mundua elikatzea, gutxi batzuk aberastea baizik.

Azken hamarkadetan, tokiko nekazaritzarako eta familiak mantentzeko erabiltzen diren lurak **esportaziorako** monolaboreen eremuetara gehitu dira. Nekazaritzako elikagaien industriaren eskuetan dagoen monolaboreen hedatze horrek, erauzketa-transnaziionalen jarduera gero eta handiagoarekin batera, tradiziozko nekazarien iraupena mehatxatzen du, bai eta beren lurraldean elikadura-burujabetza praktikan jartzea ere. Egoera horretan, gizon-emakume nekazariak honako hauek borrokatzeko prest daude:

- **Nekazaritza industrialak**, maskulinizatuak, teknologizatuak, intentsiboa energia fosilaren eta petroliotik deribatutako beste sargai batzuen kontsumoan, nekazarien eskala txikiko nekazaritzaren (gehienbat emakumeek babestutakoa izaten da) aurkako ereduak.
- **Transgenikoak eta** hazien nahiz nekazaritzako ezagutzen gabeen **patenteak** sartzea; tradizioz, emakumeek gordetzen eta transmititzen zituzten halakoak, eta orain merkatuan erosi behar dira. Hazien transnaziionalen mende-

kotasuna sortzen da, eta halakorik ez zegoen ordea, emakumeak arduratzen zirenean askotariko haziak zaindu, hautatu eta trukatzeko.

- **Agrotoxikoak** erabiltzea, batez ere glifosatoa, ugaltzeko adinean dauden emakumeak kaltetzen baititu bereziki. Nekazaritza industrializatuak jardunbide nagusia den inguruneetan, ohiko bihurtzen da emakume askok hogeita hamar urterekin menopausia izan dezaten, alergiaren eta minbizien kopurua handi dadin, neskatok garai aurreko garapen hormonalak izan dezaten, edo sortzetiko malformazioekin jaiotzen diren haurren kopuruak estatistiken batez bestekoa alde handiz gaindi dezan.
- **Agroerregaitzarako edo abeltzaintza intentsiborako monolaboreak**; ezartzen diren tokietan aurretik gertatu gabeko goseteak sortzen ari dira halakoak, eta goseak emakumeei, haurrei eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eragiten die batik bat.
- **Lur gaineko meatzaritza**; elikagaiak ematen dituen lurra pozoitzen du, eta ura betiko kutsatzen du (ura biltzea emakumeen ardurak izaten da tradizioz).
- **Ekonomia berdea**, baliabide naturalen merkantilizazioa dakar eta.

Itxuraz, beharbada, egoera horiek landa-eremuko komunitate guztiari berdinean eragiten diotela irudi lezake, baina hori horrela ez dela ikusten dugu. Sistema kapitalista eta patriarkal batean bizi gara, eta sistema horrek emakumeak zanpatzen eta mende jartzen dituzten genero-desberdintasunak berrekoizten ditu, eta haietaz bere onurarako baliatzen da. Gaur egun, emakume nekazariak dira nekazaritza industrialak eta nazioarteko merkataritzaren politikak sartzeak gehien kaltetu duen kolektiboa, egiturazko desberdintasuneko egoera dela

bide. Horren froga da landa-eremuan gertatzen den **gosearen eta pobreziaren feminizazioa**.

Merkataritzarako eta esportaziorako ekoizteko logika kapitalistak emakumeek gehienbat denboran zehar garatu dituzten automante-nuko proposamen eta praktiken logiken guztiz aurkakoak dira. Emakumeek elikagaien % 50 ekoizten dute munduan, –eta % 60-% 80 bitarte Hegoalde globalean–, baina **ikusezin** bihurturik daude. Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA), erreforma demokratikoa behar duten beste erakunde batzuen artean, entzungor egiten diote emakumeek parte-hartzea eta ordezkartza izateari erabakiak hartzerakoan, ekoizpen-ereduari eta nekazaritza-politikei eragiten dieten erabaki batzuk, hain zuzen.

2.1. Latinoamerika

Emakumeei bereziki eragiten dien arazo bat da **lurra izateko aukerarik** eza. Latinoamerikan, lurren % 18 baino ez dago emakumeen esku (FAO, 2010). Legeak eta ohiturak blaitzen dituen sexismoak desberdintasuna berrekoitz dadin sustatzen du lurren jaraunspena eta edukitza kudeatzerakoan. Ohikoa izaten da lurra semeak oinordetzan jaso dezan nahiago izatea, alabek behar ez dutela (haien zoria ezkontzea eta etxea, senarra zein seme-alabak zaintzea da) edota gai ez direla argudiaturik.

Baita kontrarreforma liberalen aldiaren aurretik nekazaritza-erreformarako prozesuak

gertatu diren herrialde gehienetan ere (Mexiko, Nikaragua, Peru, Guatemala, Bolivia, Honduras...) ezartzen du legeak lurra familiaburuarentzat dela, kasu gehienetan emakumeek lurra izateko aukera izan dezaten bazterturik. Emakumea etxeko burua zen kasu askotan ere, ezin izan zuen nekazaritza-erreformaren onura jaso, ez baitzen nekazaritza hartzen (Deere eta León, 2003)

Beste puntu kritiko bat **kreditua** izateko aukera da, oso zaila baitzaie lortzea emakumeei. Dakigunez, kredituen % 10 baino gutxiago ematen zaie emakumeei, eta, eskuratzen dutenean, kreditua gizonezkoek kontrolatzen dute askotan. Mailegu horien zenbatekoari dagokionez, ikusten dugu emakumeak direla "mikrokredituak" deritzen gehien hartzaileak, eta gizonezkoei, aldiz, kopuru handiagoak ematen zaizkiela.

Era berean, Latinoamerikan 1990ko hamarkadaz geroztik **zerbitzu publikoen urritzeak** ere, orain Europan pairatzen hasiak garen berak, emakumeentzako desabantaila bereziak ekarri ditu. Zerbitzu publiko horiek (osasuna, adinekoentzako egoitzak, estatuaren jantokiak, haurtzaindegia, eskolak...) pribatizatearen edo ez egotearen ondorioa da emakumeen zama areagotzea, sexuaren arabera lan-banaketa dela bide; eta neskatoen kasuan, prestatzeko dituzten aukerak gutxitu egiten zaizkie, ikasketak utzi behar izaten baitituzte, amei laguntzearen berrekoizpeneko lanetan. Gogoan izan dezagun analfabetoen bi here-



LA ALIMENTACIÓN DEJA DE SER UN DERECHO CUANDO SE CONVIERTE EN UN NEGOCIO.



nak landa-eremuko emakumeak direla. Baina landa-eremuan osasun-zerbitzuak urriak izanik ere, ia ez dago emakumeen osasunerako berezko zerbitzurik, hala nola laguntza ginekologikoa, eta horrek haien sexu- eta ugalketa-eskubideei eragiten die.

2002. urtean, eskualdean Ameriketako Merkataritza Askeko Eremua, ALCA deitua, (AEB, Mexiko eta Kanada barne hartzen zuen merkataritza askeko ituna Ameriken gainerakora, Kuba baztertuta, hedatzean datza) eta Puebla-Panama plana proiektuak asmatzen hasi zirenetik, gero Europarekiko elkarte-akordioekin jarraitu zelaririk, landa-eremuko komunitate eta lurralde indigena asko mehatxupean aurkitu dira, **erre-pideak, zentral hidroelektrikoak** edo **erauzketa-erloto** edo **agronegozoiari** lotutako beste **megaproiektu** batzuk egitea dela eta. Halakoe-tan, Emakumeen Mundu Martxako kide Mirian Nobrek kontatzen duenez (mugimendu feminista horrek La Via Campesinarekin batera estu lan egiten du emakume nekazarien eskubideen defentsan munduan, berekin zinezko genero-ekitate bat dakarren elikadura-burujabetza baten alde), emakumeek etengateko erresistentzia-ekintzetan parte hartzen dute uraren, agronegozioen eta meatzaritzaren arloetako transnazionalen aurrerakadari buru egiten, hainbat **indarkeria**-motari ere aurre egin behar dietela, hala nola indarkeria fisikoari, instituzionalari, sexualari... Indarkeria horiek poliziakideek, epaileek, segurtasun-indarrek eta paramilitarrek egiten dituzte, horrela jo-

katuz botere-taldeen interesak babesten dituzte-larik, estatuaren onespenerekin.

Nekazari-komunitateetan lurraren titular-tasuna ez izatea beste arazo bat da, injerentzia horien aurrean ahulago bihurtzen ditue-na. Testuinguru jakin batzuetan, **emakumeen bortxaketa** erabiltzen da presioa egiteko eta lurra utzi nahi ez dituzten komunitateak desegonkortzeko modutzat, lurraldearen okupazio sinboliko gisa ulertuta. Lurraren jabetza fami-liei ematean lortu den kasuetan (gizonezkoei gehienetan), emakumeak dira gogorrago uko egiten diotenak lurra saltzeari lur-jabe handien edo transnazionalen presioen aurrean; izan ere, azken horiek lurra prezio txikian erosten saiatzen dira, beren negozioetarako behar du-ten lurra eskuratze aldera.

Testuinguru horren aurrean, herri indigenak –La Via Campesinarekin laguntzarekin– lurralde kontzeptua eskatzen eta politizatzen ari dira, lehen erabiltzen zen *lur* kontzeptuaren aurrean. Are gehiago nabarmendu dute *lurraldea* atxikitze garrantzia, bizia (ez gizakiena baka-rrik) berrekoizten den gune gisa, bai eta kultura, pertsonen arteko harremanak nahiz pertsonen eta beren ingurunearen arteko harremanak ere. Elikagaiak ekoizteko helburua lurraren azaleko geruza ez ezik, zorupea eta dagoen kokalekua oro har ere barne hartuta.

Elikadura-burujabetzari eragiten dion bes-te elementu bat da **hazi transgenikoak** sartu izana, **esportaziorako laboreak** ugaritu izana, eta automantenerako baliabideen galera, ho-rrek dakartzan aldaketekin. Adibide bat jar-tzearen, 2003. urtean, Guatemalan egiaztatu zen hango ekoizpenen % 90 esportatzeko zela (kafea, azukre-kanabera, kardamomoa, hulea, afrikar olio-palmondoa, eta bananondoa) eta % 10 baino ez zela oinarritzko aleen ekoizpen nazionalari zegokiona; horrek era negatiboan eragin dio bertakoen elikadura-segurtasunari, eta hainbat gosete sortu ditu ordudunik. Aldi berean, **oinarritzko aleak inportatzen** ari ziren, batez ere AEBtik. Egoera horrek pobrezia, lan-gabezia eta lur-galera areagotu zituen, eta ho-rrela familien automantenerako ahalmena mu-gatu zen.

Gauzak horrela, gizon franko lekualdatu beharrean aurkitu dira jorntiar lan egiteko, edo **AEBra migratu** beharrean; ondorioz, ema-kume asko etxeko arduradun bakar geratu dira, diru-sarrera finkorik gabe eta, sarritan, *maquila*

direlakoetan, etxeko langileen sektorean edo ekonomia informalean lan egiten, gaizki ordaindurik eta lan-eskubiderik gabe. Gainera, gizon ugariren jokabidea **arduragabeko aitatasuna** izaten da, kultura matxistaren ondorioz; hala, AEBn denbora bat eman eta gero, bizitza berri bati ekiten diote, lehengo familia alde batera utzita.

la munduko ezein herrialdetan ez zaizkie aitortzen beren lan-eskubideak emakume nekazariei, eta Latinoamerika ez da salbuespena. Emakumeek era anonimoan lantzen dituzte titulartasuna ez duten lur batzuk, edota familia-ko gizonen bati laguntzen diote, bera langile gisa inon jasota egon **gabe** eta **lan-eskubideak** erabili ezinean. Batzuetan, nekazaritzako lan-merkatuan sartzen dira, prestakuntza gutxiko, teknifikaziorik gabeko eta gaizki ordaindutako lanpostu batzuetan.

Lursailetan *jornaltiar*sa gisa lana lortzen duten emakumeek **gizonezkoei ematen zaien soldataren erdia** ere jasotzen dute, lan bera egiteagatik; horrez gain, **sexu-jazarpeneko** egoera ugari jasateko arriskua izaten dute, **agrotokoen** arriskuez gain, lehen azaldu dugunez. Erdialdeko Amerikan, landa-eremuko lurjabeek eta *maquila* direlakoek ez dute lanegunaren arabera ordaintzen, ekoizpenaren arabera baizik. Horrela, emakumeak behartzen dituzte beren bizi-kalitatea eta giza duintasuna kaltetzen dituzten estrategia batzuk bilatzera, esaterako: lanaldia luzatzea; seme-alabak berekin eramatea lursailera lan egitera; edo lana etxera eramatea, eskaturiko ekoizpenak lortzearren.

Nekazaritza industrialia ezartzearekin batera datorren beste fenomeno bat **tokiko merkatu**en pixkanakako **desagerpena** da; haien ordez, supermerkatuak eta azalera handiak jartzen dira. Tokiko merkatu horietan, hain zuzen, saltzen dituzte emakumeek tradizioz nekazaritzako eta eskulangin-tzako produktuak, beren komunitateetatik ekarriak. Horrek oinarritzako beharrianak betetzeko diru-sarrerara batzuk izatea ahalbidetzen die. Halakoak desageretzeak beste koska bat estutu du landa-eremuko emakumeen pobretzea.

Azkenik, emakume nekazarien bizitzari buruz aztertu behar den beste alderdi bat da **emakumeen aurkako indarkeria**. Emakume nekazariak ezabatu beharreko hainbat indarkeria-motari aurre egin behar izaten diote (ekonomikoa, fisikoa, hitzezkoa, sexuala eta

psikologikoa). Landa-eremuak oso ingurune tradizionala eta matxista izatea du bereizgarri, eta han emakumeen aurkako indarkeria sozialki **legitimatzen da**, eta familiak berak **estali** egiten du sarritan, emakumeei isiltzeko eta mendetasuna onartzeko presioa eginik, gainera. Zenbait kasutan, **etxebizitz**en anto- laerak berak errazten ditu **–gune bakar**ra dute-lako edo landan **bakarturik** eta sakabanaturik daudelako– emakumeen aurkako indarkeriaren kasuak. Landa-eremuan emakumeei **laguntze-ko gizarte-zerbitzurik ez egotea** horri gaineratzen zaion beste zailtasun bat da. Horrez gain, gehienek ez dute independentzia ekonomikorik, eta, hortaz, ahultasun-egoera batean jartzen ditu horrek, irtenbide gutxiarekin eta indarkeria matxistaren mota batzuk jasateko arrisku handiagoarekin.

Deskribatutako egoera guztiak **menderakuntza kapitalista eta patriarkaleko sistemen zerbitzura dagoen egiturazko indarkeria** baten agerpenak direla deritzogu. Tresnatzat jotzen duen indarkeria bat, emakumeen bizi-tzaren, gorputzaren eta sexualitatearen kontrolerako, jabetzerako eta esplotaziorako, bai eta egungo desberdintasunak atxikitzeke ere.

Aurreko guztia dela eta, herrien elikadura-burujabetzarantz aurreratzea ez ezik, bada erronka bat, aldi berean, **emakume nekazarien parte-hartze politiko eta publikorantz** aurrera egitea ere; horretarako alde aurreko baldintza da emakumeak ahalduntzea, nola arlo publikoan hala arlo pribatuan, norberaren gorputzaren gaineko autonomiatik hasita. Horrez gain, ezinbestekoa da antolakundeek ikuspegi feminista sar dezaten beren borroka-agendetan, eta beren egituretan aldaketak egin ditzaten.

Gogorarazi behar dugu Latinoamerikako nekazari-mugimenduaren buru daudenak gizonezkoak direla batik bat, eta halakoek nekazarien edo indigena-nekazarien **borroka-ikuspegi orokor** bat dutela, **emakumeen berezko aldarrikapenak** ikusezin egiten edo **atzeratzen** dituen.

Arazo horiei erantzuteko, 2000. urtean, **La Via Campesin**ak **Nazioarteko I. Emakume Batzarrean** konpromiso batzuk ezarri zituen emakume nekazarien giza eskubideen berdintasunaren alde:

- Emakumeek familian, komunitateetan eta antolakundeetan erabakiak hartzen parte har dezaten bermatzea.

- Landa-eremuko emakumeek eta neskatuek, beren etxeetan batik bat, pairatzen dituzten abusu fisiko eta sexualak amaitzea.
- Emakumeek lurra izateko aukera izan dezaten sustatzea, bai eta osasun-zerbitzu egokiak izan ditzaten ere.
- Emakumeek biodibertsitatea gordezten eta hobetzen duten rola aitordin aldarrikatzea, eta korporazioen lapurretari nahiz baliabide genetikoaren gaineko patenteei aurka egitea.
- Nekazaritzako soldatapeko lanean berdintasuna eskatzea, soldataren aldetik zein emakumeek jasotzen duten tratuaren aldetik, askotan jazarpena jasaten baitute eta kalte fisiko nahiz psikologikoen biktima gertatzen baitira.

Konpromiso horiek lortzearren, La Via Campesinak zenbait erronka garrantzitsu gainditu behar ditu:

- Elikadura-burujabetzaren paradigma pixkanaka eraikitzea, bizitzarako etika gisa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren oinarrien gainean.
- Diskurtsotik praktikara igarotzea genero-ekitateko estrategiak abian jartzen, erakunde-mailan zein maila politikoan.
- Nekazari-antolakundeak blaitzen dituen kultura matxista gainditzea.
- Emakume nekazarien arteko harremanak indartzea, emakumeen autonomiaren eraikuntzan aurrera egite aldera.
- Mugimendu feministarekiko aliantzak sendotzea, Emakumeen Mundu Mar-

txarekin bereziki, teoria feministari bere ikuspegitik ekarpena egitearren, eta alderantziz.

2.2. Euskal Herria

Gure ingurunean ere jasan dute modu berezian emakumeek nekazaritza industrial eta nazioarteko merkataritzaren politikak sartu izana. Nekazaritza-jarduerarako, oro har, testuingurua zaila delarik, emakumeek genero-desberdintasunak pairatu dituzte gainera.

Landa-munduan, familia konbentzionalari irizten zaio egokiena, familia-nekazaritza irauteko esparru praktiko gisa. Bizikidetzaren eskema horretan, emakumeek hartzen dituzte beren gain **berrekoizpeneko eta zainketako lanak** gizarte-zerbitzuak –hiri-ingurunearekin erkatuta– oso urriak diren ingurune batean, eta joera, egungo krisi-egoeran, zerbitzu horiek are gehiago urritzea da, emakumeentzako lana areagotuz ondoz. Agerian da etxekeko lanak eta zainketako zereginak gehienbat emakumeek egiten duten lana dela; izan ere, astean bikotekideek ematen duten halako bi denbora ematen dute horretan. Emakundek (2010) aditzera ematen duenez, landa-eremuan, zeregin horiek emakumeen denboratik % 56 hartzen dute, eta gizonen denboratik, % 27. Zainketako lanetan emakumeek eta gizonen presentzia desberdina bada berez zailtasun bat beste arlo ekonomiko bazuetan baldintza-berdintasunera heltzeko.

Bestalde, emakumeen berrekoizpeneko lanak gutxietsi edo **ikusezin atxiki** egiten da **familia barruko laguntza gisa**, eta, hortaz, en-



plegutik datozen gizarte-eskubideetatik baztertuta geratzen dira. Horren ondorioz, beste gauza askoren artean, emakumeek ez dute diru-sarrera propiorik izaten. "Emakumeak landa-ingurunean" Eusko Jaurlaritzak agindutako lau urtez behingo ikerlanak (IKT, 2010) eginiko ikerketa baten arabera, "nekazal ustiategi batean dihardutela dioten emakumeen %44ak dio ez dutela denborarik ematen batere etxetik kanpoko lanean, eta hala, ustiategiko lanek bat egiten dute maiz etxeko lanekin".

Garrantzizkoa da nabarmentzean landa-eremuan etxeko lanaren definizioa ez dela hiri-eremuan bezain argia. Horrek lotura du **ekoizpeneko eta berrekoizpeneko** prozesuak egiten diren guneen arteko banaketa fisiko eskasagatik. Guneak nahasita egote horrek emakumeen lana gutxiesten laguntzen du. Familiaren ustiategiaren barruan, emakumeek egindako lana garatu den arloa tradizioz haien esparru nagusiak izan direnen –hots, etxearen eta sukaldearen– luzapena izan da; hartara, baratztea eta azienda xehea luzapen-modukoak dira, familia elikagaiez hornituko dutenak. Emakumeen lana batez ere berrekoizpenekin bateragarriak diren jardueretan biltzen da, seme-alaben zaintzarekin bateragarriak direnetan bereziki. Etxeko lanak, zainketari loturiko zeregin guztiez gain, kontabilizatzen zailak diren ekoizpen-zereginetatik asko ere barne hartzen ditu. Gizonek askoz ordutegi zehatzagoa eta argi ezarritako gune fisiko bat dute, ekoizpenerako guneak identifikatzea ahalbidetzen diena, baina emakumeek, ordea, ez dituzte argi identifikatzen ekoizpenerako eta berrekoizpenerako guneak, haien zereginen izaera irregularra, askotarikoa eta jarraitutasunik gabekoa dela eta (Cruz eta beste, 1995).

Eskuarki, Magdalena Leónnek eta Lidia Senrak diotenez, Europako nekazaritzako ustiategietan gizonezkoek transakzio ekonomiko handiak egin dituzte, hala nola ferietako abere-salmenta edo nekazaritzako produktuen kantitate handien salmenta, eta emakumezkoak, aldiz, salerosketa txikiez arduratu dira, eta familiaren kontsumorako ekoizpenaz (Entrepueblos, 2009). **Sexuaren arabera lan-banaketa** da emakumeak mendetasun-maila batean atxikitzeko oinarritzko mekanismoetako bat. Dakigunez, **zeregin jakin batzuen feminizazioa** da bide nagusia desberdintasunak sor daitezen. Gehienetan, zeregin horiek esku-trebetasuna edo pazientzia handia eskatzen dituztenetakoak izaten dira, eta aitormen ekonomiko gutxikoak, haurtzarotik prakti-

karen poderioz bereganatutakoak eta emakumezkoentzat berezkoak balira bezala mozorrotu direnak. Sexuaren arabera lan-banaketa fenomeno agertzen da emakumeak zaintza-eginkizunetan nahiz baratz zaintza intentsiboari eta loregintzari loturiko lanetan kontzentratuz (estatuko beste eskualde batzuetan maizago gertatzen da hori), edo Euskal Herriko kontserba-industrian.

Egun, landa-eremuko emakume gehienek ez dihardute nekazaritzan. Nekazaritza industrialara garatzeak **emakumeak kanporatzea** eragin du. Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Estatistika Erakundearen datuei bakarrik begiraturik, gaur egun 8.510 pertsona dihardute nekazaritzan, hau da, biztanleetatik % 0,9k, gehienak gizonezkoak direla. Estatistika ofizialetan datu hori sexuaren arabera banaketa aurkitzea ez da erraza, nahiz eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hala eskatzen duen. Kalkulatzen denez, baserriko hamar emakumetatik, zortzik gutxienez lantzen dute lurra. Haietatik, % 68k Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe dihardute (Entrepueblos; 2009). Era berean, sektorean lan egiten duten emakumeen artean, erretiroa hartzekotan dagoen belaunaldi bat eta orain sartzen ari den belaunaldi berri bat daude.

Lehen sektoreak gero eta pisu gutxiago du. Duela hamar urte halako bi ustiategi zegoen. Oraingo joerak iraunez gero, hamar urte barru **inor ez** da arituko **lurra lantzen**. Dauden datuen arabera, tamaina txikiko ustiategiak desagertzen ari dira, eta ustiategi handiek, ordea, gero eta toki handiagoa dute nekazaritza-arloko ekoizpenean. Gero eta nekazaritza intentsiboagoko eredu baterantz doa joera. 2009ko nekazaritza-eroldaren arabera, EAEn nekazaritzako 16.554 ustiategi daude, eta haietatik 15.637 familiako langileekin dabilta. Nekazaritzako ustiategi guztietatik, 11.365 (% 69,1) gizonek zuzentzen dituzte, eta 5.080 (% 30,9) emakumeek.

Egoera hori **Nekazaritzako Politika Bate-ratuaren (NPB)** ondorio zuzena da: merkatua erregulatzeke funtzioa alboraturik, enpresa handiak laguntzen bitartez mesedetu ditu, eta nekazaritzako prezioak jaitz daitezten ahalbidetu. Espainiako estatuan, laguntzen % 75 onuradunen % 16ren eskuetan geratzen dira. Zumavesa, Nutrexa, Unilever, Nestlé edo Mercadona enpresek euroak milioika jasotzen

dituzte, baina laguntzaren bat jaso duten pertsonen erdiek, ordea, 1.250 eurotik beherako zenbatekoak eskuratu dituzte. Eskala txikiko ekoizpenean jardun duten pertsona horiek guztiek pairatu dute era zuzenagoan Nekazaritzako Politika Bateratua.

Ezbairik gabe, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien **errentagarritasuna** da kezka handietako bat. Horri ordutegi malguen betebeharra eta gizartearen aitormena ez jasotzea gehituz gero, gaitza da gazteak nekazaritza-sektorean sar daitezen, eta dauden kezka handietako beste bat da hori; izan ere, **belaunaldi-txandakatzerik** gabe, sektoreak ez du etorkizunik. Egun, nekazaritza-eroldaren arabera, ustiategien jabe diren pertsonen erdiak baino gehiago 55 urtetik gorakoak dira. Nekazaritzaren sektorean sartu nahi duten pertsonak zailtasunak dituzte **lurra** izateko aukeraren aldetik. Batetik, azpiegitura handiak nekazaritzako lur emankorra desagerrarazten ari dira, eta, bestetik, espekulazioak prezioak igoarazten ditu. Alabaina, ekonomia-krisiari loturiko fenomeno berri bat ere ikusten da. Badiardi hiri-eremuko gero eta pertsona gehiago azter-tzen ari direla landa-eremuan autoempleguko proiektu bat aurrera eramateko aukera. Gehienak hogeita hamar urte inguruko emakumezkoak dira, unibertsitateko ikasketak dituztenak, eta agroekologian interesatuak. Halakoak gizon-profil tradizionalari gehitzen zaizkio: 20 urte ingurukoak dira, eta familiaren jarduerari jarraipena ematen diote nekazaritzako lanbide-heziketa burrututakoan. Azaleratzen ari diren nekazari berriak nazioarteko errealitate bat dira,

landa-eremuen etorkizunaz era positiboan pentsatzeko bide ematen duena.


Egoera horretan, genero-ekitateari dagokionez, aitortu beharreko aurrerapen zenbait gertatu dira. 2012ko urtarrilean **Titulartasunari buruzko Legea** indarrean sartu zen, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean gizonen eta emakumeen artean berdintasuna sustatzeko eta errazteko asmoz. Pertsona titularraren ezkontideen edo izatezko bikotekideen lana zein kudeaketa-ardurak erabat aitortu daitezela sustatzen du, administrazioaren aurrean ez bakarrik lanaren baizik eta kudeaketaren partaideak izateko aukera eskainirik. Titulartasun partekatuko nekazaritzako ustiategi baten titulartasuna bere gain hartzen duen 50 urtetik beherako ezkontide orok % 30eko beherapena baterako eskubidea izango du Gizarte Segurantzako kuotetan 5 urtean zehar. Hala ere, izapide horretarako titularraren baimena eskatzen da, eta hori arazoa da batzuetan.

EAEn **Emakume Nekazariaren Estatutua** idatzi izana beste ebidentzia bat da, eta, beste gauza askoren artean, sektorean lan egiten duten emakumeak Nekazarien Gizarte Segurantzari afiliatzeko laguntza-programa bat ezartzen du.

Garrantzizko aurrerapenak izanik ere, funtsezkoa da elikadura-burujabetzaren aldeko mugimenduak aitortu dezan emakumeek, eredu agroindustrialaren ondorioz familien ustiategi txikiei sortutako arazoez gain, genero berdintasunak ere jasaten dituztela. Horri dagokionez, garrantzitsua da egiturazko kausak aztertzea, eta neurriak zein konpromisoak hartzea.



3. Eta horren guztiaren aurrean, zer egingo dugu? Estrategiak



Elikadura-burujabetza, bere planteamendu agroekologiko, sozial eta genero-ekitatezkoekin, kontzeptu politiko eta biltzaile gisa sortu zen, non **mugimendu ekologista, nekazari-mugimendua, mugimendu indigena eta mugimendu feminista elkartzan** baitira.

Emakume-profil desberdinek eskaera edo beharrian desberdinak dituzte. Horren ondorioz, mugimendu indigena, nekazariena eta feminista edo emakumeena batzuetan elkarrekin antolatzen dira eta beste batzuetan bereizi egiten dira, baita elikadura-burujabetzari dagokionez ere, emakumeen borrokaren aniztasuna agerian utzita.

Desberdintasunak desberdintasun, **mugimendu horiek guztiak asmo bera dute**, bizitzaren aldeko borroka, pertsonak erdigunea garen bizitza duin baten alde. Ekonomia-eredu berri bat, Lurrarekin eta pertsonekin instrumentala ez den harreman bat izatean oinarritua. Asmo hori pertsona guztiak eta geroko belaunaldiak partekatzeak soiltasun-irizpideekin bizitzen ikas dezagula eskatzen du; geure buruak, ez naturaren jabe, baizik eta naturaren mende aitor dezagula; gizartean beste gizaki batzuen mende gaudela kontziente izan gaitezela, zainketak jaso behar ditugula, eta guztiok, emakume zein gizon, bai beste pertsona batzuk bai natura zaintzeko ardura dugula, eta elkarrekikotasun hori beharrezkoa dela bizitza duina izateko.

Egiazko genero-ekitatearekin baterako elikadura-burujabetza bat sustatzen duten—eta Mugarik Gaben gure egiten ditugun— planteamenduetako batzuek ondorengo jatorri hauek dituzte:

3.1. Ekofeminismo kritikoa


Mugimendu ekofeminista feminismoaren eta ekologismoaren agerpen berri gisa sortu zen. Patriarkatuak emakumeen eta natu-

raren artean egiten duen asoziazioa salatzen du. Lehen aipatu diren *emakumea-natura* eta *gizona-kultura* binomioak eta kulturari naturaren gainetik ematen zaion nagusitasuna lagungarri suertatzen dira azaltzeko zergatik jotzen diren emakumeak gizonak baino gutxiagokotzat.

Ekofeminismoak proposatzen du mugimendu feministak eta mugimendu ekologistak helburu komunak dituztela (eskubide-berdintasuna, hierarkiak kentzea, eta abar) eta batera lan egin beharko luketela alternatiba teoriko eta praktikoak eraikitzen, feminismoaren aldarrikapenak elikadura-burujabetzaren proposamenei eta kontzientzia ekologikoari lotuz.

Ez dago ekofeminismo bakarra, zenbait joera baizik. Bi pentsamendu-ildo nagusi bereizten dira, emakumeen identitatea eta gizakiek naturarekin duten harremana ulertzeko moduari begiratuta; hau da, badago ekofeminismo klasiko bat, esentzialistagoa eta espiritualistagoa, emakumeak biologikoki edo ontologikoki naturatik hurbilago daudela uste duena, eta beste ekofeminismo bat konstruktibista, baldintza historikoak eta ekonomikoak nabarmentzen dituena. Bigarren horretan kokatzen dugu **ekofeminismo kritikoa**, Mugarik Gaberen ikuspegitik hurbilekoa: emakumeek jasaten duten zapalkuntza naturaren narriadurarekin lotzen du, eta aditzera ematen du balio patriarkalak direla bi arazoon sortzaileak.

Alicia Puleoren (2011) arabera, ekofeminismo kritikoa *"doktrina eta praktika zapaltzaileak aztertzeko helburua du, bai patriarkatu tradizionalenak bai gaur egungoenak, tradizio emantzipatzaile ilustratua berraztertuz. Emakumeen berdintasuna eta autonomia aldarrikatzen du, sexu- eta ugalketa-eskubideen aitormenean arretoa berezia jarririk. Ezagutza zientifiko eta teknologikoaren onurak onar-*



tzen ditu, aldi berean zuhurtasun handiz eta erne jokatu gero, betiere. Zainketaren etikaren balioak unibertsal bihurtzeko sustatu du, emakumeak "planetaren salbatzaile" saiatuak bihurtzeko saihestuz. Emakumeen giza eskubideak gutxitzen ez duen kultura arteko ikaskuntza bat proposatzen du, eta naturaren batasuna eta jarraipena baiesten ditu, ezagutza eboluzionista onartuz eta gizakiak ez diren animalien gaitasunak errukia eta justizia tinko eskatuz".

3.2. Ekonomia feminista

Ekonomia feminista ekonomia konbentzionalaren **helburuen aldaketa** batetik abiatzen da. Erabilgarritasunak, etekinak edo kontsumitzailearen "asebetetzea" maximizatzeko asmoa hartu beharrean, ekonomia-jardueraren erdigunean berrekoizpena, bizitza mantentzea eta guztiontzako, gizon zein emakume, bizitza duin bat lortzea jartzen ditu. Horrenbestez, haren proposamenak hauek direla esan dezakegu: bizitzak jarrai dezan, gizakiei, gizartei zein ekologiari dagozkien alderdietan, oraingo zein etorkizuneko belaunaldientzat; kalitatezko bizitza izan dadin, bizitza on bat, pertsona guztiak eta ekosistema guztiak barne harturik.

Ekonomia feministaren lehen ekarpena erabiltzen den **ekonomiaren** eta lanaren **nozioa zabaltzeko** proposamena izan da. Amaia Orozco (2010) aditzera ematen duenez, "ez dago merkatu kapitalistek gure aztertze-ahalmenaz egin duten kolonizazioaren erakusgarri handiagorik arlo ekonomikoa ulertzeko modua "ekoizpeneko" eta merkataritza-banaketako prozesuak aztertzea murriztu izana baino. Beharrianak estaltzeko baliabideak eta

bizitza merezi duen bizitza baterako baldintzak sortzea da ekonomia".

Ekonomia feministak **izozmendiaren metafora** proposatzen du sistema sozioekonomikoa irudikatzen. Sistemak (hierarkikoa berez) desberdintasuna behar du irauteko. Merkaturia da garrantzitsua, eta esparru horretatik nahiz diru-transakzioetatik kanpo dagoen guztia baztertu egiten da. Logika horretan, zainketak, bizitza mantentzeko zeharo beharrezkoak izanik, ezkutuan geratzen dira

Ekonomia feministak honakoa proposatzen du:

- **Ongi bizitza** helburu sozioekonomikotzat berriz definitzea. Erdigunean bizitza jartzea, kapitalaren ordez.
- Bestelako logika ekonomiko bat eraikitzea, **zainketak** barne hartuko dituen, gastuen aldetik zein sarreren aldetik, zainketok egiten dituenari dagokion ordaina emanda.
- **Birbanaketaren** alde egitea, hazkunderaren burugabekeriaren aurrean.
- **Desberdintasunak zuzentzea**, egiturazkoak, klasekoak, generokoak, etniari lotutakoak, hegemoniaren globalaren ingurukoak,...

3.3. Emakumeen proposamenak nekazari-mugimenduan

La Via Campesinak (LVC), nazioarteko mugimendua den aldetik, bere **agendan** printzipio eta aldarrikapen feministak sartzen ditu (parekidetasuna, emakumeen antolatze-guneak, landa-eremuko emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko kanpainak...). Horren erakusgarri dira **emakume nekazariarentzako berezko lan-eta eztabaidea-guneak**: nazioarteko foro eta batzarren aurretik egiten dira, eta ezinbestekoak dira beren agendak adosteko eta pisu handiagoa izan dezaten halako ekitaldietan; hain zuzen ere, haietan antolakundearen lehentasunezko estrategiak eta jardueraildoak erabakitzen dira.

Ezbairik gabe, horrek lagundu egin du, elikadura-burujabetzari dagokionez, genero-ekitatearen funtsezko alderdiztat honako hauek identifika daitezten:

- Emakumeen **parte-hartze** parekidea erabakiak hartzeko guneetan (nekazari-antolakundeak, sindikatuak, sareak, eta abar), berezko languneak izanda, **ema-**

kumeen beharrizan eta interes bereziak aztertze aldera.

- Aurrekoa aintzat hartzeko, arazo praktiko batzuk konpondu behar dira, emakumeek egiaz parte har dezaten erabakiak hartzeko guneetan (**ordutegiak, ardurakidetzazainketetan, prestakuntza, autoestimua...**), eta, halaber, zenbait gizon eta antolakunderen erresistentziei heldu behar zaie.
- Jendaurrean era positiboan balioestea haiziak gordetzea, nekazaritzako ezagutza tradizionalak transmititzea, eta eskala txikiko ekoizpen-moduak; izan ere, elikadura-burujabetza sustatzen duten oinarri batzuk dira horiek, eta emakumeak izan dira haietan **protagonistak** historian zehar, behar bezala estimatu ez bazaie ere.
- **Titularkidetasuna** lortzea, bai eta gizoneneko nekazariak dituzten lan-eskubide eta eskubide sozial berak **izateko aukera**, emakumeak familiako laguntza gisa edo mikro-proiektuen ekintzaile gisa ikusteari utzita.
- **Sexuaren araberako lan-banaketa** bukatzea landa-eremuan, eta emakumeak nekazari xeheen nekazaritzako maila eta sektore guztietan integra daitezen sustatzea.
- **Emakume nekazarien aurkako indarkeriari** buru egiteko borroka, haien bizi-baldintzak direla eta (bizitza, lana eta etxea bikotekidearekin batera eguneko ordu guztietan; mendetasun ekonomiko handia; etxebizitza bakartuak askotan; zerbitzu publikoetatik urrun dauden etxeak, eta abar), indarkeria jasateko moduko parada ahulean aurkitzen baitira eta oso zaila baita handik ateratzea egoera horretan.

Hala ere, apostuok mugimenduaren agenda orokorrean eta LVCren egituran daude onartuago, hura osatzen duten sare eta antolakunde ugarietan baino. Maila horretan, zailtasunak daude egiazko genero-ikuspegia onartzeko antolakundeetan eta haien praktikan. "Aski da emakumeen aurkako indarkeria Mundu Kampaina" delakoak eta antzeko ekimenek gatazka sortzen dute nekazari-antolakundearen eguneroko jardueran jartzean, antolakundeetan ere erresistentziak agerian utzirik.

Beharrezkoa da oinarri-antolakundeetan **feminismoaren ekarpenak** sar daitezen, proposa-

menenen beharrezko berrazterketari dagokionez (zainketak, ekonomia feminista...), eta emakumeak zein gizonak gune sozial, politiko eta ekonomikoetara parekidetasunez sartzeari dagokionez. Egituraren eta kulturaren aldetiko aldaketa bat behar da oraindik, haren bidez rolak berdintasunez berriz esleitzeko bikotearen, etxearen, nekazari-antolakundearen eta erakunde publikoaren arloetan, bai eta ekoizpen-arloan ere, aldi berean haurrei sexista ez den prestakuntza eta hezkuntza ematen zaiela.



Gaur egun arte, nolabait Latinoamerikako nekazari-mugimenduarekin batera (haren ordezkari nagusia Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones del Campo –CLOC-LVC– deritzona da, hots, "Landa-eremuko Antolakundearen Latinoamerikako Koordinakundea") antolatu diren edo harekin harremanetan sartu diren antolakunde feministak honako hauek dira. Emakumeen Mundu Martxa (MMM) eta Red Latinoamericana de Mujeres Transformando la Economía (REMTE) izenekoak ("Ekonomia Eraldatzen ari diren Emakumeen Latinoamerikako Sarea), eta Mesoamericanas en Resistencia por una Vida Digna deritzona ("Bizitza Duin baten aldeko Erresistentziako Erdialdeko Amerikako Emakumeak"), besteak beste.

3.4. Emakume indigenen proposamenak

Herri indigenek milurtekoak daramatzate bizitzaren, natura-munduaren, eta izaki bizidunen arteko harremanen ikuspegi bat praktikan jartzen eta babesten; ikuspegi horretan, giza-kiak komunitateko kide izatearen, existitzen den guztiarekiko errespetuaren zein naturarekiko oreka eta harremanaren zentzu garai bat

du, pertsonak naturaren parte jotzen direla, ez haren jabe.

Mugimendu indigenaren aldarrikapenek eta *ongi bizitzea* delakoaren inguruan duten mundu-ikuskerak nekazari-mugimenduk ulertzen dituen bestelako moduan uler ditzakete nekazaritza-erreforma edo luraren eta lurraldearen jabe izateko erak, eta indigena guztiak ere ez dira nekazariak. Hala eta guztiz ere, elikadura-burujabetzaren printzipioei dagokienez, bi mugimenduen artean oso adostasun argia dago.

Generoa eta feminismoa Mendebaldeko diskurtso berri samar bat da bidegabekeriak ikusgai bihurtzeko, eskubideak aldarrikatzeko eta berdintasunean aurrera egiteko. Emakume indigenek, emakume-antolakundeetatik eta/edo emakume eta antolakunde feministetatik (askoz gutxiago), beren berdintasun-estrategia formulatu dute, beren kode kulturalekin, eta sarritan indigena ez den mugimendu feministarenen oso bestelako lehentasunak izaten dituzte, bai eta beste oinarri kultural bat ere (feminismo komunitarioa, eskubide kolektiboen aldeko apustua, gorputz-lurraldea...). Beharrezkoa da mugimendu feministaren diskurtsoak eta proposamenak eguneratzearen garrantzia berraztertzea, aniztasuna aintzat hartuz eta agian eurozentrikoak edo kolonialistak diren praktikak sortu gabe, ikaskizunak hainbat ikuspegitatik eta mundu-ikuskeretatik jasota.

Puntu honetan gurutzatzen da, halaber, pertsona bakoitza osatzen duten **askotariko iden-**

titateen bizipena (emakumea, nekazaria, indigena...) eta nola une jakin batzuetan behartu da identitate batzuei eta haiei dagozkien borrokei lehentasuna ematera, mugimenduen borroka eta agendak bateratzeko moduak –inola ez errazak– bilatu beharrean; horrek frogatzen du, halaber, ezin dela bigarren une baterako atzeratu emakumeen eskubideak betetzearen aldeko borroka. Errealitate hori gertatzen da emakumeak identitate indigenaren eta emakume-identitatearen artean jarrera bat hartu eta “aukeratu” beharrean aurkitzen diren tokietan, borroka horiek bereizezinak direla ulertzen dugularik, eskubide indibidualak eta kolektiboak diren bezalaxe, eta, bereiziz gero, beren izaera eraldatzailea galduko luketela.

Lehen aipatu dugunez, emakume indigenek jarri dituzten elementuak, azterketaren, esperientziaren zein proposamenen aldetik, ugariak izan dira, baina haietako bi nabarmendu nahi ditugu. Batetik, eskubide kolektiboak ikusgai bihurtzea, eta ez bakarrik eskubide indibidualak; eta bestetik, lurraldearen defentsaren aldeko apustua, bi gako kontuan harturik: gorputz-lurraldea eta lur-lurraldea, gizonek lurralde bataren zein bestearen gaineko menderakuntza bertan behera utz dezatela tinko eskatuta. Bigarren proposamen hori adibide argia da gurutzagune horiek, borroka elkarlotu ez ezik (borroka indigena eta borroka feminista kasu honetan), eskubideak bete daitezzen lortzeko planteamendu eta estrategia berriak sortu ere egiten dutela.



4. Proposamenak

Ondoren aurkezten dugun zerrenda zenbait banakoren proposamenak nahiz hainbat kolektibo eta antolakunderen proposamenak bilduz osatu da. Hemendik, gure esker ona adierazten diegu haiek guztiek egin duten ahaleginagatik.

Behar hauek ditugu abiapuntu:

- Generoko azterketa bat egitea, bai elikadura-burujabetza edo emakumeen ahalduntzea eragozten dituzten politika publikoei buruz, bai abian jarri nahi diren alternatibei buruz.
- Salatzea hala sektore pribatuak baliabide naturalez jabetzeak eragiten duen indarkeria nola emakumeek pairatzen duten indarkeria gizonak biek ekoiztiko baliabide eta aberastasunez jabetzen direnean.
- Emakume nekazarien eskubideak aitortu eta errespetatzea langile diren aldetik, haien lan-eskubideak ziurtatuz eta sexuaren araberako lan-banaketa ezabatuz.
- Emakumeek lurra, bai eta beste baliabide batzuk, izateko eta kontrolatzeko aukera izan dezaten bermatzea.
- Emakume nekazarien parte-hartze politikoa areagotzea.
- Nazioarteko lankidetzeta eta elkartasuna zabaltzea eta sendotzea pertsonen, mugimenduen zein herrien artean, genero-ekitatearekiko nekazaritza-burujabetzaren esparruaren barruan.

Labur esanda, elikadura-burujabetzaren eraikuntzak, ezinbestez, gizonak emakumeen gainean gauzatzen duten menderakuntzaren sistema deseraiki behar da, ez bakarrik giza-kiak naturaren gainean gauzatzen duena menderakuntzaren sistema. Elikadura-burujabetza ezin da eraiki sistema patriarkal baten gainean.

Genero-harremanetarako esparru berri batean baino ezingo da gertatu gizarte-aldaketa bat, emakumeei bere eskubideak eta aukerak itzuliko dizkiona, pertsona gisa, nekazari gisa eta emakume gisa.

EAEko erakunde publikoentzat:

1. Nekazaritzari eta merkataritzari buruzko politika berriak egin eta abian jartzea, elikadura-burujabetzan oinarrituta, Nekazaritzako Politika Batearitutik datorren eredu albu batera utzirik, elikagaien eta elikagai-banaketa-aren arloko enpresa handiek jasotzen baitute haren onura, ustiategi txiki-ekin kaltetan, eta bereziki emakumeen kaltetan.
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzen dela bermatzea; hain zuzen, lege horrek ezartzen du *"euska! herri-agintee! genero-ikuspegia txertatu behar dutela beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten"*, genero-ikuspegiaren integrazioa hau izango dela: *"emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea"*.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko

3/2007 Lege Organikoa betetzen dela ziurtatzea; lege horrek, hain zuzen, ondorengo eskatzen du: *"izaera orokorreko xedapen-proiektuak eta berebiziko garrantzia duten plan ekonomiko, sozial, kultural eta artistikoak, Ministroen Kontseiluak onetsi behar dituzten, txosten bat izan beharko dute generoan oinarritutako eraginari buruz"*.

4. ELIKA-Nekazaritzako Elikagaien Seguratasunerako Euskal Fundazioa Elikadura Burujabetzarako Euskal Herriko Agentzia bihurtzea.
5. EAEko Elikadura Burujabetzari buruzko Aholku Batzordea sortzea, gizarteak parte har dezan Euskal Herriko Agentziaren barruan, bai nekazaritzaren sektoreak bai emakumeen antolakundeek zein antolakunde feministek ordezkariak izango dituztela bermatuta.
6. Emakume Nekazariaren Estatutua betetzen dela bermatzea, beharrezko baliabideez hornituz.
7. Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak (LAJ), eredu sozioekonomiko-ekologikoa lurraldera eramaten duen arau-tresna gisa, elikadura-burujabetza susta dezala eta genero-ikuspegia har dezala eskatzea.
8. Nekazaritzako lur emankorra murrizten duten edo ura kutsatzen duten proiektu eta azpiegitura handiak geraraztea, *fracking* delakoa kasu, lehen sektorea desagerraraztea eragiten baitute, eta gure elikadura arriskuan jartzen.
9. Agroekologikoa, tokikoa eta zirkuitu laburrekoa den ekoizpen bat sustatzea, tokiko elikadura-sistemak bultzatzearen, halakoak lan-iturri eta tokiko ekonomiaren iturri izan daitezke eta. Emakumeek eginiko lana aitortu beharko du, eta ekoizpen-sisteman sartu; halaber, landu daitezkeen lurrik izateko aukera izan dezaten erraztu beharko du, eta denetarikoa baliabideak izateko aukera nahiz kontrola emakumeen eta gizonen artean birbanatu, emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatzeaz gain.

10. Biztanle guztientzat elikagaiz hornitzea, behar den kantitatez eta kalitatez, ekoizpen txiki eta ertainean oinarriturik.
11. Pertsonen zaintzari eta elikadurari lotutako zereginak birbana daitezzen sustatzea, eta horretarako hezteak. Emakumei bakarrik dagokien jarduerak gisa hartzeari utz dakiola, eta gizonekin bana dadila, horrek dakarren lan guztiekin batera: merkatura joatea, prezioak erkatzea, baratzeak zaintzea, elikagaiak garbitu eta prestatzea, eta abar.
12. Landa-eremuetan oinarritutako zerbitzu publiko kalitatedunak bermatzea (osun-zentroak, haurtzaindegia, ...).
13. Landa-eremuan indarkeria matxistari aurka egitea, beharrezko baliabideak eman eta jende guztiarentzako, oro har, sentsibilizazio-jarduerak sendotuz.
14. Gazteak nekazaritzako sektorean sar daitezzen sustatzeko neurriak bultzatzea, belaunaldi-txandakatzea gertatu ahal izateko, hain beharrezkoa izaki.
15. Supermerkatuak eta azalera handiak era masiboan ezar daitezzen galaraztea; horrek tokiko merkatuak kaltetzen ditu, hots, emakumeek tradizioz nekazaritzako eta eskulangintzako produktuak saltzen dituzten tokiak.
16. Emakumeek landa-ingurunean duten egoerari buruzko berriak azterlanak egitea, eta estatistika ofizialetan sexua-aren arabera banakaturako datuak argitaratzea, nekazaritzako jarduerari dagokionez.
17. Sexista ez den eta ingurumen-ardurantz daraman hezkuntza bat sustatzea, luraren alderako maitasuna, errespetua eta mirespena bultzaturik, bai eta iritzi hobezina ere, haren balioagatik. Ekoizpenetik hurbilago dagoen harreman bat bultzatuz, prozesu naturaletatik gero eta isolatuago egon gaitezkeen saihestearren.
18. Labore transgenikoak debekatzea, egungo araudi higieniko-sanitarioa aldatzea, eta biomimesiari buruzko




I+G+Bn egiten den inbertsioa handitzea EAEn, betiere emakumeen bizitzan izaten den inpaktu berezia aintzat hartuta.

Gizarte-mugimenduentzat:

1. Elikadura-burujabetzaren paradigma emakumeen eta gizonen arteko ekitatearen printzipioan oinarritu behar dela aitortzea. Horrek eskatzen du bai emakumeak ikusgai bihurtzeko eta politikan parte hartzeko neurriak har daitezela bai kontzeptu eta proposamen feministak onar daitezela.
2. Elikadura-burujabetza, herrien burujabetza eta emakumeen autonomia elementu eta borroka bereizezintzat jotzea. Emakumeen berezko aldarrikapenak atzeratzeak halakoei ez heltzea dakar berekin, genero-desberdintasunak betikotuta horrela.
3. Politika-mailako estrategiak prestatu eta aurrera eramatea, nekazarien agendan emakumeen berezko aldarrikapenak sarturik; horrela, antolakundeak, landa-eremua eta gizartea, oro har, blaitzen dituen kultura matxista gainditzen laguntzen da.
4. Barne-mailako estrategiak prestatu eta aurrera eramatea genero-ekitatearen inguruan. Feminismoaren ekarpenak harturik, antolakundeen, sindikatuen, sareen eta abarren erabakiak hartzeko guneetan parte-hartze parekidea lortzea. Berezko languneak izanda, emakumeen beharrian eta interes bereziak aztertze aldera. Horretarako, arazo praktiko batzuk konpondu behar dira, emakumeek egiaz parte har dezaten erabakiak hartzeko guneetan (ordutegiak, ardurakidetza zainketetan, presakuntza...).
5. Antolakundeen arteko elkarrizketa eta sare mistoak (emakumeenak eta feministak) ezartzea, Iparralde eta Hegoalde globaletako hainbat antolakundearen arteko topaguneak egon daitezten sustatuta, esperientziak trukatzeko, sareak ehuntzeko, eta agenda bateratuak eratzeko.
6. Bereizkeria eta indarkeria matxistaren mota guztiak jendaurrean gaitzestea, gizarte-mugimenduen ardurakidetza onarturik antolakuntzan, salaketan, prebentzioan eta alternatiben sorkuntzan.

5. Kontsultatutako eta gomendatutako zenbait agiri recomendados



Kontsultatu den bibliografia:

- CARRASCO, Cristina (2009). "Mujeres, sostenibilidad y deuda social", en *Revista de educación*, número extraordinario, abril 2009, p. 169-191.
- COOPERACCIÓ (2011). *Claves feministas para una soberanía alimentaria con pertinencia cultural*. Disponible en: <http://www.cooperaccio.org/wp-content/uploads/2011/12/MANUAL-ALIMENTARIO-imprenta1.pdf>
- CRUZ, Josefina; GARCIA, M^a Dolors; y SALAMAÑA, Isabel (1995). *Mujer y agricultura en España. Género, trabajo y contexto regional*. Oikos-tau: Barcelona.
- DEERE, Carmen Diana; LEÓN, Magdalena (2003). "La brecha de género en la propiedad de la tierra en América Latina". Disponible en: <http://redalyc.uaemex.mx/src/inicio/ArtPdfRed.jsp?iCve=59806803>
- DUQUE, Elena (2009). Entrevista a Alicia Puleo: claves para aproximarnos al ecofeminismo. *Ameco Press*. Disponible en: <http://www.amecopress.net/spip.php?article2149>
- FERNÁNDEZ DELGADO, Arantxa (2011). *Soberanía alimentaria y género: las mujeres como agentes activos en el desarrollo rural*. Congreso internacional "Educación y soberanía alimentaria" (ESF- AECID, octubre 2011). Disponible en: <http://www.educacionsinfronteras.org/files/515993>
- GARCÍA, Fanny (2010). "Lucha por la Igualdad de Género en el movimiento campesino internacional de La Vía Campesina". *Revista Soberanía Alimentaria, Biodiversidad y Culturas*, núm. 1, marzo 2010, p. 18-23.
- EUSKO JAURLARITZA (2009). *Elikadura-subiranotasuna emakumeen jabekuntzatik eta haien jabekuntzarako – IV. Jardunaldiak Garapenerako Estrategia Positiboak*. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz.
- EMAKUNDE (2010). *EAEko emakumeen lanbide ibilbide eta egoerako desberdintasuna*. Emakunde: Vitoria-Gasteiz.
- ENTREPUEBLOS (2009). *Las Mujeres alimentan el Mundo. Soberanía alimentaria en defensa de la vida y el planeta*. Disponible en: <http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18131/original/mujeresalimentanelmundo.pdf?1284475559>
- EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea, www.eustat.es
- FONTENLA, Marta (2008). "Patriarcado" en GAMBA, Susana (Coord.) *Diccionario de estudios de género y feminismos*. Biblos: Buenos Aires.
- IKT (2011). *Emakumeak landa-ingurunean. Lau urtez behingo ikerlana-Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri*. http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net/r50-6552/es/contenidos/informacion/mujeres_rurales/es_agripes/adjuntos/mujeres_medio_rural.pdf
- INE-Instituto Nacional de Estadística, Censo Agrario (2009), www.ine.es/inebmenu/mnu_agricultura.htm
- MUGARIK GABE (2012). *Desazkundea eta ondo bizitzea: Mugarik Gaberen apustu handia*. Disponible en: www.mugarikgabe.org
- MUNDUBAT (2011). *Feminismoak eta elikadura-burujabetza uztartu emakumeen eta herrien autonomia lortzeko. Hemen eskuragarri*: <http://www.mundubat.org/archivos/201205/feminismosysacast.pdf?1>

- MUNDUBAT-EHNE (2010). *Emakume nekazarien eskubideak eta aldarrikapenak. Hemen eskuragarri*: <http://www.mundubat.org/archivos/201107/dossiermujcamp.pdf?1>
- PEREZ OROZKO, Amaia (2005). "Amenaza tormenta: La crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico". Disponible en: <http://ebookbrowse.com/gdoc.php?id=160677173&url=0c8afbbe75e8aef0a7388a9df6a771a5>
- PEREZ OROZKO, Amaia (2010). "Diagnóstico de las crisis y respuestas desde la economía feminista". *Revista de Economía Crítica*, núm. 9, p. 131-144.
- PULEO, Alicia H. (2002). "Un repaso a las diversas corrientes del ecofeminismo: Feminismo y ecología". *El Ecologista*, núm. 31, p. 36-39.
- PULEO, Alicia H. (2011). "Ecofeminismo para otro mundo posible". Cátedra: Madrid.
- VETERINARIOS SIN FRONTERAS (2010). *Construyendo la soberanía alimentaria*. Disponible en: http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18326/original/Construyendo_la_soberania_alimentaria.pdf?1301305269
- VETERINARIOS SIN FRONTERAS (2012). *Una PAC para el 1%*. Disponible en: <http://www.veterinariossinfronteras.org/news/2012/05/15/0002>

Kontsultatutako eta intereseko beste web-orri batzuk:

- ALIADAS POR LA SOBERANÍA ALIMENTARIA: aliadasporlasoberania.blogspot.com.es
- BASERRI BIZIA: www.baserribizia.info
- COORDINADORA LATINOAMERICANA DE ORGANIZACIONES DEL CAMPO-LA VÍA CAMPESINA: www.cloc-viacampesina.net
- DESAZKUNDEA: www.desazkundera.org/
- EHNE-BIZKAIA: www.ehnebizkaia.org
- LA VÍA CAMPESINA: www.viacampesina.org
- EMAKUMEEN MUNDU MARTXA: www.marchemondiale.org
- MUNDUBAT: derechoshumanosdelcampesinado.org
- PLATAFORMA RURAL: www.plataformarural.org
- SARETUZ: saretuz.wordpress.com
- SOBERANÍA ALIMENTARIA, BIODIVERSIDAD Y CULTURAS: revistasoberaniaalimentaria.wordpress.com
- ZENTZUZ KONTSUMITU-CONSUME CON SENTIDO: www.consumoresponsable.info



6. Glosarioa

AGROEKOLOGIA: Elikagai osasungarriak ekoizteaz gain, beste alderdi batzuk ere barne hartzen dituena, hala nola kultura, ekonomia, gizartea eta politika: elikadura, osasuntsu jateko modu bat ez ezik, alderdi sozial bat ere baduela ulertzen da. Agroekologiaren printzipioak: ingurumena kontserbatzea; labore organikoetatik datozen tokiko haziak erabiltzea; izurriak eta gaitzak autorregulatzea edo biopestizidak, kontrol biologikoa eta landare-animalien erresistentzia naturala erabiltzea; laborantzan bertan energia-ziklo itxiak areagotzea; ongarri, medeagarri eta simaur organikoak erabiltzea; sasoiko labore osasungarri eta elikagarriak ekoiztea.

AITATASUN/AMATASUN ARDURATSUAK: Aitatasun/amatasun arduratsuaren barruan sartuko lirateke (batetik) emakumeek eta gizonak seme-alabak izateko unea eta haien kopurua erabakitzeke –beren egoeraren arabera eta, hortaz, ugalketa-eskubideak erabiltzeko– ardura eta (bestetik), behin seme-alabak izatea erabakiz gero, haiei ondasun material eta afektiboak emateko ardurakidetasuna.

ANDROZENTRISMOA: Teoriaren eta ezagutzaren ikuspegitik, mundua eta gauzak ikustea haien guztien erdigunea eta neurria gizonak balira bezala, gainerako guztia ezkutatu eta ikusezin bihurtuz, emakumeek gizarteari egiten dizkioten ekarpenak eta emaitzak besteak beste. Aurruposatzen du gizonetzkoen esperientzia litzatekeela esperientzia “unibertsala”, nagusia, gizateriaren erreferentzia edo irudikapena, emakumezkoen esperientzia albo batera utzita. Iturria: Palabras para la Igualdad. Biblioteca Básica Vecinal.

ARDURAKIDETASUNA: Hori dela eta, bateragarritasuna gainditu behar da, eta ardurakidetasuna ezarri, alegia, bai emakumeek bai gizonen arlo publikoaren eta pribatuaren ardura hartzea, gizonetzkoek etxeko eta zainketako espa-

rruan parte har dezaten nabarmenduta, baina, era berean, estatuaren, merkatuaren eta, oro har, gizartearen ardura ere ikusgai eginik.

BIODIBERTSITATEA: Lurraren gainean dauden askotariko izaki bizidunak, bai eta Lurra eratzen duten natura-sistemak ere aipatzen dituen terminoa, mila milioika urteko eboluzioaren emaitza gisa, prozesu naturalen ondorioz eta gizakien jardueren eragin gero eta handiagoaren ondorioz. Biodibertsitateak ekosistema ugariak nahiz espezie barruko gene-desberdintasunak ere barne hartzen ditu. Halakoek bizidun-mota asko konbinatzea ahalbidetzen dute, eta haien arteko eragin-trukeak, ingurunearen gainerakoarekin batera, planeta gaineko biziaren euskarria dira. Iturria: *Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazioarteko Hitzarmena*.

DESAZKUNDEA: Pentsamendu politiko, ekonomiko eta sozialeko joera bat da, ekonomia-hazkunde mugagabearen aurka dagoena. Kontsumoa eta ekoizpena gutxitzea aldeztu du, gizakiaren eta naturaren artean oreka-egoera berria ezartze aldera, bai eta gizakien artean ere, gizonen eta emakumeen artean.

EKOFEMINISMOA: Feminismoaren eta ekologismoaren agerpen berri bat. Patriarkatuak emakumeen eta naturaren artean egiten duen asoziazioa salatzen du. *Emakumea-natura / gizona-kultura* binomioak eta kulturari naturaren gainetik ematen zaion nagusitasuna lagungarri suertatzen dira azaltzeko zergatik jotzen diren emakumeak gizonak baino gutxiagokotzat. Ekofeminismoak proposatzen du mugimendu feministak eta mugimendu ekologistak helburu komunak dituztela (eskubide-berdintasuna, hierarkiak kentzea, eta abar) eta batera lan egin beharko luketela alternatiba teoriko eta praktikoak eraikitzen, feminismoaren aldarrikapenak elikadura-bu-

rujabetzaren proposamenei eta kontzientzia ekologikoari lotuz.

EKONOMIA FEMINISTA: Zalantzan jartzen ditu teoria ekonomiko gehienak, haien joera androzentrikoa dela eta. Haren abiapuntua da ekonomia konbentzionalaren helburuak aldatzea, ekonomia-jardueraren erdigunean berrekoizpena, bizitza mantentzea eta bizitza duin bat lortzea jarririk. **Genero-ekonomiaren** eta ekonomia feministaren arteko aldea da lehenak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun ekonomikoak salatzean diharduela gehienbat, esparru globala zalantzan jarri gabe, eta ekonomia feminista, aldiz, azterketa ekonomikoaren kontzeptu nagusiak birformulatzen ari dela: Cristina Carrasco

EKITATEA: Justizia esan nahi du, aniztasuna aitortzea da, hori inongo bereizkeriaren kausa izan gabe. Proposatzen du trataera berdinak bultzatzea, edo desberdinak, baina baliokidetzat jotzen direnak eskubideei, onurei, betebeharreri eta aukerei dagokienez. Genero-ekitate gizonen eta emakumeen tratamendurako zuzentasunari dagokio, batzuen eta besteen beharrezan araberak. Tratamendu neutro batez hara indikoa da; emakumeei aukera-berdintasuna izatea galarazten dieten desabantaila historiko, sozial eta kulturalak konpentsatzeko neurriak har daitezela eskatzen du.

ELIKADURA-BURUJABETZA: Herriek nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko beren politikak zehazteko duten eskubidea da, elikagai elikagarriak, kulturalki egokiak, eskuragarriak eta metodo iraunkorrez zein toki-mailan ekoizteko eta kontsumitzeko duten eskubidea. Emakumeen eskubideak aitortzen eta errespetatzen ditu elikagai-ekoizpenean, bai eta erabakiak hartzeko organo guztietan parte har dezaten ere.

ELIKADURA-SEGURTASUNA: Pertsona guztiak janaria eskuratzeko aukera ziurtatuta dutenean lortzen da, janari segurua eta elikagarria, bizitza aktibo eta osasuntsua izateko helburuarekin. Kontzeptu horrek ez du aipatzen elikagai horiek norik ekoizten dituen eta nola ekoizten dituen.

ELIKAGAI-KRISIA: Elikagaien prezioak hainbeste garestitzearen ondorioz jende gehienak elikagaiok ezin eskura ditzakeen mundu-egoera. 2008ko elikagai-krisiaren eraginez, munduko

pertsona elikatu gabeak 100 milioitan gehitu ziren. Elikagaien prezioak igotzeko kausa nagusiak hauek izan ziren: agroerregaiak eta burtsak elikagaiekin eginiko espekulazioa.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: Terminoa Beijingeko Emakumeen buruzko Konferentzian sortu zen, erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea izateko aukeran emakumeek parte-hartze handiagoa izateari erreferentzia egiteko. Adierazpide horrek barne hartzen du, era berean, emakumeek banaka eta kolektiboki duten botereaz kontzientzia hartzea, norberaren duintasuna berreskuratzeari lotuta. Iturria: Palabras para la Igualdad. Biblioteca Básica Vecinal. Ahal duntzea ezin dio inork besteri eman, pertsonak berek ahaldu behar dute beren burua. *Ahal* (boterea) terminoa kontzeptu honetan *zerbaiterako ahal* da (beste batzuen gainekoen boterea ez bezala), ahal sortzailea da, eraldatzeko gaitasuna duena, Kate Youngek dioenez, bai eta arlo indibiduala gaindituz aldaketak lortzeko gaitasuna ere.

FEMINISMOA: Feminismo bada bai pentsamendu teorikoko korrante bat bai gizarte-mugimendu bat. Feminismoa deritzonaren barruan badaude askotariko ikuspegiak, hainbeste non "feminismoak" ere aipatu izan baitira Feminismoen ezaugarri komun gisa, ikus daiteke gizonen eta emakumeen artean desberdintasunezko egoera bat dagoela atzematen dela eta modu batean edo bestean desberdintasun horri dagokion *status quo* aldatzeko nahia dagoela.

GARAPEN IRAUNKORRA: Garapen-modu bat da, egungo beharrezan betetzea ahalbidetzen duena etorkizuneko belaunaldiak beren beharrezan betetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe. Baliabideen ustiaketa, inbertsioen joera, eta aldaketa teknikoak eta instituzionalak harmonian dauden aldaketa-prozesu bat. Iturria: Brundtland Txostena (1987).

GENEROA: Generoa eta genero-harremanak eraikuntza sozialak dira, gizarte batetik bestera nahiz garai batetik bestera aldatzen direnak; hala, bada, eraikuntzak izanik, aldatu, berrinterpretatu eta berreraiki egin daitezke (Palabras para la Igualdad. Biblioteca Básica Vecinal). Halaber, badaude beste interpretazio batzuk –korrante dekonstruktibistakoak batik batik– hala sexua nola generoa eraikuntza sozialtzat jotzen dituztenak. Halakoen arabera, gorputza bera dago diskurtsoaren bidez erai-

kita (hizkuntza, zientziak, erakundeak, legeak, eta abar), eta sexuaren eta generoaren arteko bereizketa, horrenbestez, ondorio faltsu bat da, sexua eta generoa eraikitzeke mekanismoak estaltzen laguntzen duena, gainera. Generoaren kontzeptua sartzean, maskulinitate-eta feminitate-ereduak ulertu eta atzemateko modu berri bat sortu zen, testuinguru jakin bati zegokionez, eta elementu hori funtsezkoa da garapeneko genero-ikuspegian.

GENEROKO AZTERKETA/DIAGNOSTIKOA: Haren helburua da testuinguru jakin batean rola eta identitateak, botereen banaketa, emakumeen eta gizonen arteko onurak eta ardurak dokumentatzea eta ulertzea, bai eta generoen arteko desberdintasunak ere. Bada modu bat, halaber, programek, proiektuek, politikak eta legeak emakumeen gainean eta gizonen gainean izaten dituzten inpaktu bereziei behatzeko. Helburu nagusia da genero-berdintasunaren aldeko jarduera baterako eremu nagusiei antzematea, hala emakumeentzat nola gizonentzat onura ekartzeko moduan bertiere.

GENERO-BERDINTASUNA: Haren abiapuntua da gizaki guztiek, gizon zein emakume, beren trebetasunak garatzeko eta aukerak egiteko askatasuna dutela, estereotipoek, genero-rol zurrunez edo aurreiritziek mugaturik egon gabe. Horren arabera, emakumeen eta gizonen berezko jokabideak, nahiak eta beharriak aintzat hartu direla eta halakoak era berean balioztatu eta sustatu direla. Ez du esan nahi gizonak eta emakumeak gauza bera bilakatu behar dutenik, baizik eta haien eskubideak, ardurak eta aukerak ez direla egongo gizon edo emakume jaio izanaren mende. Iturria: ABC of Women Worker's Rights and Gender Equality, Geneva: ILO, 2000.

GENERO-IKUSPEGIA: Genero-teorian jatorria duen lan-norabidea; emakumeen eta gizonen egoera aztertzen du bien arteko harremanen edukia nabarmenduz eta botere-harremanak zalantzan jarriz, bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa den proposamen eraldatzaile batean oinarriturik. Iturria: Hegoa

GENEROKO POLITIKA: Beren jarduera-eremu guztietan gizonen eta emakumeen arteko harremanak eta gizartearen barruan dituzten toki desberdinak aintzat hartzen dituzten politikak, eta, halaber, jarduteko xedetzat gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna dutenak.

Generoko politika batek dagokion testuinguru aztertu behar du, testuinguru jakin horretan berdintasuna erdiesteko geratzen diren oztopoak zehaztu, eta bere neurriak landu, aurretiko azterketaren emaitzak kontuan hartuz. Generoko politika baterako generoko azterketa bat behar da halabeharrez. Generoko politika ez da bakarrik gaur egun arte gizonen nagusi diren arloetara sar daitezen emakumeei laguntzeko politika bat, baizik eta bestelako gizarte-eredu baterantz diharduen politika bat, pertsonen arteko berdintasuna dakarten balioak sartuz.

GENERO-ZEHARKAKOTASUNA [GENDER MAINSTREAMING]: Edozein ekimenek –legeak, programak eta politikak barne– edozein arlotan edo mailatan gizonen eta emakumeen bizitzaren gainean izango duten inpaktu bereziaren diagnostikoari dagokio. Estrategia bat da emakumeen eta gizonen interesak, kezak eta esperientziak berezko dimentsioa izan daitezen arlo guztietako (politika, ekonomia, gizartea) politikak eta programak taxutu, abian jarri, gainbegiratu eta ebaluatzeko prozesuan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna berriz ez gertatzeko eta betikotzeko. Iturria: Mujeres en Red.

GIZA GARAPENA: Gizarte batek herritarren bizi-baldintzak hobetzeko prozesua, bere oinarritzko beharriak zein beharriak osagarriak bete ahal izateko ondasunak gehituz eta guztien giza eskubideak errespetatzen diren ingurune bat sortuz. Bere inguruan bertan giza duen aukera-kopurua da, izan edo egin nahi duena izateko edo egiteko. Garatzen den ingurunean giza izakiak duen bizi-kalitatea neurtzeko modu bat dela esanez ere defini liteke, bai eta funtsezko aldagai bat ere herrialde edo eskualde bat kalifikatzeko.

IKUSPEGI FEMINISTA: Estrategiak eta proposamenak aztertzeari, zehazteari eta abian jartzeari feminismitik teoria kritiko gisa helitzen dion ikuspegia. Kontzeptu hau berrartzen dugu, azken urteetan ikusi dugulako asko zabaldu direla generoko politika despolitizatuak, instrumentalak, benetako izaera eraldatzaileak izan gabe prozesuak estaltzen dituztenak eta/edo proposamen horren inguruan mugimendu feministaren aitormena eta protagonismoa ikusezin atxikitzen dituztenak. Kontzeptu hori hobetzeko estrategiak ikusgai bihurtzeko eta ekintza eta pentsamendu feministako proposamenak berreskuratzeke modu

bat da, emakumeen eskubideen etengabeko urraketaurrean eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen gehitzearen aurrean.

IRAUNKORTASUNA/JASANGARRITASUNA: Espezie batek inguruko baliabideekin duen orekari dagokio. Hedaturaz, baliabide bat hura berritzeko mailaren azpitik ustiatzeari ere baderitzo Gizon-emakumeen onuraren aldetik eta 1987ko Brundtland Txostenaren arabera, oraingo beharrianak asetzeari datza, baina etorkizuneko belaunaldiak beren beharrianak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe.

KONTSUMISMOA: Kontsumismoak oinarritutzat jotzen ez diren ondasunak eta zerbitzuak metatu, erosi edo kontsumitzea esan nahi du, edo, era berean, gizarte-talde jakin baten barruan estatusa eta prestigioa erdiestearren aberastasuna norberegantzeko lehia sustatzen duen sistema politiko eta ekonomiko aipa dezake. Gaur egungo gizarteko eskala handiko kontsumoak arrisku larrian jartzen ditu baliabide naturalak eta oreka ekologikoa. Kontsumismoak, neurrigabeko eskuraketa edo erosketa gisa ulerturik, bere eraginak eta ondorioak idealizatzen ditu, kontsumismoa gauzatzea gogobetetze pertsonala, baita norberaren zorientasuna ere, lortzearekin lotuz.

KRISI EKOLOGIKOA / INGURUNE- / INGURUMEN-KRISIA: Espezie edo populazio baten inguruneak bere iraupena desegonkortzeko moduko aldaketa kritikoak jasaten dituenean gertatzen da. Kausak askotarikoak izan daitezke, esaterako: aldaketa abiotiko bat; harraparitzaren presioa, edo gainpopulazioa. Kasu horietan guztietan, ingurunearen kalitatea narriatzen da, bertan bizi den espeziearen beharriari dagokienez.

LANALDI BIKOITZA: Egoera hori jasaten dute lan-ordutegian lan ordaindua egiten duten eta, gainera, berrekoizpeneko lanari dagozkion zeregin guztiak egin behar dituzten emakumeek, azken lan hori ez baitute erdibanatzen emakumeon gizonezko bikotekideek. Iturria: Palabras para la Igualdad. Biblioteca Básica Vecinal.

LANAREN BATERAGARRITASUNA: Emakumeen zein gizonen laneko, arlo pertsonaleko, familiariko eta aisia-komunitateko denboren harmonizazioari dagokio. Emakumeak lan-arloan sartzean, kritikatu izan da halako politikak,

une jakin batzuetan, tresnak bihurtu direla emakumeek etxeko eta zainketako lana bete dezaten errazago egiteko.

MASKULINITATEA/MASKULINISMOA: Maskulinitatea gizartean gizonezkoei esleitzen zaien nolakotasuna da. Interpretazio tradizional eta patriarkalak egozten dizkien ezaugarriak izaten dira kemena, erabakitzeko ahalmena, ekintza, lehia, nagusitasuna, agintea, indarra, sendotasuna, gogortasuna, independentzia, eta abar, emakumezkoen ezaugarriek baino balio handiagoa dutela. Maskulinitatea gizonek eraturiko gogoetazuei dagokie; gune horien helburua da gizona izatearen inguruko esperientziak eta bizipenak, haren esanahia eta haren ondorioak partekatzea. Iturria: Xabier Odriozola, 2008.

MATXISMOA: Gizonezkoak eta emakumezkoak bi talde desberdinetan banatzen dituen gizarte-sistema bati dagokion jokabidea (jarre-erak, ekintzak, diskurtsoak, eta abar). Bakoitzak polo-genero bat eratzen du, bata bestearen osagarri, eta biak hierarkikoki antolatuta daude, gizonezkoek boterea dutelarik eta emakumeak mendean daudelarik. Jokabide hori koherentea da sexu/generoko sistema patriarkalarekin, eta haren mikro-maila eratzen du. Iturria: Flavia Limone

MERKATURATZE-ZIRKUITU / -KANAL LABURRA: Gehienez bitartekari bat duen merkataritza-eredua, ekoizten dutenen eta kontsumitzen dutenen artean, alegia. Zuzeneko salmenta dela esaten da bitartekariarik ez badago. Adibide batzuk: ekoizle-merkatuak; kontsumo-taldeak; etxez etxe banatzen diren kutxen egitura; ustiatzietako bertako salmenta; denda espezializatuak edo tokiko produktuen dendak; jatetxeak eta jantoki kolektiboak.

NEKAZARITZA ORGANIKOA EDO EKOLOGIKOA: Elikagai osasungarriak ekoizteari soilik dagozkiona.

ONGI BIZITZEA: Komunitate guztiarentzat – eta ez norbanakoarentzat bakarrik – nahikoa denaren etika. Gizakiaren ikuskera holistikoa eta integrazzailea du, eta gonbit egiten gaitu ekosistemak jasan dezakeen baino gehiago ez kontsumitzera eta segurtasunez gure gain ezin har dezakegun hondakinik ez sortzera, eta erabili dugun guztia berrerabiltzera eta birziklatzera bultzatzen gaitu. Iturria: Leonardo Boff.

PATRIARKATUA: Maskulinoak femeninoa mendeantzen izatea bermatzeko ezarritako eta intuzionalizatutako (egitura politiko, ekonomiko eta sozialen bidez) gizarte-antolakuntzako sistema.

POBREZIAREN FEMINIZAZIOA: Fenomeno horren arabera, egungo pobretze-dinamikak batez ere emakumei eragiten diete; izan ere, testuinguru globalean haiek osatzen dute talderik pobretuena, goranzko joera batekin. Hona hemen atzeman diren dinamika horren kausa zenbait: berrekoizpeneko lanen ardurak emakumei esleitu izana; lan-merkatuan duten desberdintasuneko egoera; eta emakumei buruz indarrean diren estereotipoak, horiek guztiak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunari lotuak. Maila globalean gertatzen den fenomeno bat da, eta, kalkulatzeko denez, munduko pertsona pobreenetatik % 80 emakumezkoak dira (PNUD 2000), joera goranzkoa dela.

SEXISMOA: Sexu femeninoaren gutxiagotasunean oinarritzen den teoria bat da, gizonen eta emakumeen arteko alde biologikoen ondorioz. Emakumeak gizonak baino gutxiagokotzat jotzen diren ordena sinboliko bat eraikitzeak jokabide eta jarrera estereotipatu batzuk eragiten ditu, sexu bat bestearen mende jartzera daramatenak. Egile batzuek matxismoa eta sexismoa bereizten dituzte; izan ere, matxismoa oharkabeko jarrera bat da –jokabide matxistak dituen pertsona bati bere jarrera esplikatzen zaionean, halako jokabideak uztea erabaki dezakeen neurrian–, baina sexismoa jarrera kontzientea da, sexu femeninoa sexu maskulinoaren azpian menderatzea eta eskuperatzea bultzatzen duena. Iturria: Mujeres en Red

SEXU-GENEROKO SISTEMA: Sistema horretan, aditzera eman nahi da nola sortzen den, pertsona bat jaiotzen den sexu-desberdintasunean (emakumezkoa edo gizonezkoa) soil-soilik oinarriturik, sinesmen, balio, ohitura, arau, praktika, aukera eta jokabide sozialez osatutako multzo oso bat. Sexua biologiazko desberdintasun sexualtzat jotzen da, eta generoa, aldiz, eraikuntza sozialtzat definitzen da, eta denboran zehar eta gizarte batetik bestera aldatzen da.

SEXUAREN / GENEROAREN ARABERAKO LAN-BANAKETA: Emakumeek eta gizonek egiten dituzten lan-mota desberdinak eta ematen

zaien balio desberdina aipatzen ditu. Sexuaren araberrako lan-banaketa berezkoa da kultura eta historiako une bakoitzean, eta denboran zehar alda daiteke, bai eta kanpo-eragineen ondorioz ere. Ez bada kontuan izaten sexuaren araberrako zer banaketa dagoen, lanaren antolaketari buruzko ikusmolde okerrak har daitezke, eta daitekeena da emakumeen lana ikusezin geratzea. Iturria: Hegoa. Desberdintasunak gertatzen dira emakumeak tradizioz berrekoizpeneko lanarekin (etxeke eta zainketako lana) eta komunitate-lanarekin, gizarte-alorrekoa eta borondatezkoa gehienetan, lotzen direnean. Kasu batean zein bestean, lan horri balio gutxiago ematen zaio ekonomikoki zein sozialki. Ekoizpen-lanari, lan-merkatuan egiten denari, dagokionez, emakumeak proportzio txikiagoan egoten dira, eta okerrago ordaintzen diren eta lan-baldintza okerragoak dituzten lanak egiten dituzte, sektore informalean jarduteaz gain. Iturria: Mugarik Gabe.

ZAINKETEN KRISIA: Zainketen beharrianak konpontzeko ereduak kolokan zegoen. Emakumeek denbora eta indar guztiak xahutu zituzten lan ez-ordaindu horretan, baina *gizonezkoena* zen lan-merkatu batera masiboki sartzen hasi ziren, hots, inor zaindu behar ez duten pertsonentzat diseinaturiko egitura duen lan-merkatu batera. Horrela, merkatuaren logikaren eta zainketaren logikaren arteko tentsioa indar handiz agertu zen, eta emakumeak tentsio hori beren gorputzean bertan sentitzen hasi ziren; izan ere, borrokaleku bihurtu zen egoera baten eta bestearen eskakizunentzat. Hori konpentsatzeko, lanaren "*bateragarritasunerako*" politika eta legeak erabili nahi izan zituzten. Baina nekez batera daiteke bateraezina dena: gizarte-antolaketan merkatuek hartzen duten erdiguneko tokiak lan-merkatuaren inperatiboek erabateko lehentasuna ematea dakar, beste edozein argudioren aurrean. Haien ekoizpen-beharrek denbora soziala antolatzen dute, eta ezin dira eztabaidatu, zainketa-beharren aldean. Iturria: Sira del Río.